

1919-2019



# ARGIA

## Estatu kolpea Venezuelan

NAZIOARTEKO LOBBY NEOLIBERALAREN ENEGARREN SAIAKERA

#2.631 | 2019/02/10 | 3,90 €



**"Euskaldun' kontzeptua biziki gustatzen zait"**

27 | DYLAN INGLIS



**Urriaren 1eko erreferendumaren aurkako epaiketa**

30 | KATALUNIA



**80 urte bete dira 1939ko erretiradatik**

34 | OROIMEN HISTORIKOA

# ZULOAN

Bidaia bat AHT  
eta lan-esplotazioan  
barrena

Urko Apaolaza Avila



14 €

ARGIA  
// LIBURUAK //

## AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez  
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

### Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | ☎ 943 371 545 | azoka@argia.eus

AHTzuloan



@AHTzuloan



www.argia.eus/blogak/zuloan



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:  
SANTI DONAIRE

## Iritziak

- 17 | ESTITXU GARAI ARTETXE
- 18 | KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
- 19 | IÑAKI MURUA
- 19 | ITXARO BORDA
- 20 | ANA MENDIA

GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
CESAR DE VICENTE
- 54 | BERANDUEGI



ANC

### 30 | KATALUNIAKO INDEPENDENTISMOAREN AURKAKO EPAIKETA

La Directa aldizkariko Jesús Rodríguez kazetariak epaiketa irregulartasunez lepo hasiko dela azaldu du erreportaje honetan.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

### Jaka Horien erresuman gubernua mutilatzaile eta boluntarioak sorosle

Pello Zubiria Kamino

12 | AITZOL LASA

### “Hizkuntza indartu zutelako dira finlandiarrak herrialde garatua”

Reyes Ilintxeta

22 | VENEZUELA

### Hogei urtez inperialismoaren jomugan

Z. Oleaga

27 | DYLAN INGLIS

### “Euskara ikasita, atzerritar euskaldunok leku berezia dugu euskal gizartean”

Mikel Asurmendi

34 | HISTORIA

### 1939ko erretirada, azkena ote?

Josu Chueca

38 | ETXEXE ETXEKO LANGILEEN BORROKA

### Ehunka langile kalera eta hemen ez da ezer gertatzen

Malen Aldalur Azpillaga

44 | KARMELO C. IRIBARREN

### “Zintzurretik heltzen ez didan literatura ez zait interesatzen”

Kepa Matxain

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea  
**Lehendakaria**  
Bego Zuza

### Erredakzioa

Amia Lekunberri, Axier Lopez,  
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,  
Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano,  
Iñigo Igartua, Jon Torner,  
Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi,  
Mikel Garcia, Onintza Irureta,  
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,  
Xabier Letona

### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa:

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,  
Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Kortza

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria  
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa  
Xalbardin baita. 64122 Urruña

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina  
31001 Iruñea

#### Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus  
harpide@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

Ametzagaña taldeko kidea da  
ARGIA honako enpresekin batera:  
Antza inprimategia  
Iametzta komunikazio zerbitzuak  
Adur informatika zerbitzuak

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software  
productions

## Doan eta libre

ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu,  
zabaldu eta argitara ditzakezu, gure  
egiletza aitortu eta baldintza beretan  
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak  
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)



# JOALDUN

ARGAZKIA | EKAITZ ZILARMENDI  
TESTUA | AXIER LOPEZ

Suitza, Letonia, Kroazia, Kantabria, Polonia, Sardinia, Malerreka... Europako txoko askotan bizirik iraun duen errittoa. Bakoitzak bere molde, jite, soinu eta erritmoraren egokitua. Gurean mende luzez Ituren eta Zubietan baizik gordetakoak, egun Euskal Herriko herri askotara zabaldu dira joaldun taldeak. Txuntxurro azpian zomorrotuta, isipuaren erritmoraren gorputzaren mugimendua talde-soinu bilakatzeak zirrara eragiten jarraitzen duen seinale.





GAUR HISTORIA EGIN DUGU. MUNDU GUZTIAN EMAKUMEEN ARTEKO FUTBOL PARTIDU BAKAR BAT EGON DA PUBLIKOAN GAURKO JENDETZA GAINDITU DUENA. 48.121 ZALE BILDU DITUGU GAUR. ESKERRIK ASKO!

@AthleticClub



SAN MAMESEKO KEINUAK IZUGARRIZKO GARRANTZIA DU EMAKUME GAZTEEI BEGIRA

Izaskun Landaida (ETB)



ZELAIRANTZ ESKAILERAK IGOTZEN ARI GINENEAN MALKOAK ERORTZEN ZITZAIZKIDAN. EMAKUMEEN FUTBOLAREN ALDE APUSTU EGITEA, ZALDI IRABAZLEAREN ALDE APUSTU EGITEA DA. HAZTEN ARI GARA

Garazi Murua, Athletic-eko jokalaria (*El Correo*)



IKARAGARRIA ZALEEN BABESA JOKALARIEI, BAINA NIRE GALDERA, EZJAKINTASUNETIK: LORTU DITUZTE JOKALARIEK BABES HORREN ARABERAKO SOLDATA DUINA, ETA SOILIK KIROLERA DEDIKATU AHAL IZATEKO MODUKO LAN BALDINTZAK?

@DraPipeta



# “Gara” egunkariari Garzónnek ezarritako zor bidegabea

ARGIA @argia

**G**ara egunkariak bizi duen egoeraren berri eman du pasa den astean. Egunkariak zor bidegabe bati aurre egin behar izan dio azken hamabost urteetan, *Eginek* Gizarte Segurantzaren ordaintzeko zeukana agindu judizial baten bidez egunkari berriari ezarri ostean. Orain, aurre akordio batera iritsi dira, zor hori kitatzeko.

Agerraldian gogora ekarri dute hogeitaz bete direla *Gara* egunkaria sortu zeneetik, baita duela hamabost urtetik ordainketak etenda daudela ere, Iñaki Soto zuzendariak azaldu duenez. Baltasar Garzón epaileak 2003an hartu zuen erabaki bat dago egoera horren iturburuan: *Garari Eginen* “ondorengotza ideologikoa” leporatuta, itxitako egunkariak Gizarte Segurantzarekin zeukan zorra gainera bota zioten: 4,7 milioi. Orain, aurreakordio batera iritsi dira Gizarte Segurantzarekin zor hori kitatzeko. “Erresistentzia aro bati amaiera ematen diogu”, azaldu du zuzendariak.

## KINKA LARRIAN

Baina akordioak kinka larrian jarriko du *Gara*. Sotok azaldu duenez, datozen urteetan sei hilero ordainketa handiak egin beharko dituzte, aldiro milioi erdikoak. Prozesua amaitzen denean, hiru milioi baino gehiago ordainduak izan beharko ditu proiektuak. “Gure langile guztien urteko soldata baino gehiago ordaindu beharko dugu modu bidegabe batean”.

“Konfiantza daukagu gure buruan, uste dugu lortu dezakegula”, adierazi du Sotok. Baina erakunde publikoei, eragileei eta herritarrei dei egin die. “Hau ez da gure arazo partikular bat”. Horrekin lotuta, solaskidetza garai bat hasiko dute instituzio eta gizarte-eragileekin. Gainera, kolpe honi nola aurre egingo dioten erabakitzeke barne gogoetan ari direla ere azaldu du. “Gure fundazioaz geroztik ez dugu laguntza ekonomiko gehiago eskatu. Orain mekanismoak jarriko ditugu babes eraginkor bat bideratzeko eta eraso honen aurrean elkartasuna artikulatzeko”. ●

94



SANTI LEONÉ  
@ororostorm

**B**eldurrezko zineman maiz errepikatzen den pasarte batean, pertsonaia nagusiek zombien –edo banpiroen edo gizo- toen– eraso baten aitzinean froga ezin argiagoak dituzten arren, hildakoak nola berpiztu diren eta beren lagun bat zombi bihurtu ikusi arren, gelatik kanpo aldetik –gela batean baitira, ezin ihes eginez– atean pilatuta sartu nahian dabiltzan ez-hildako- en gose intziriak bertzerik aditzen ez duten arren eta oraindik bizirik daudenak auskalo norena den odoletan blai dauden arren, pertsonaia batek –ez pertsonaia nagusiak normalean, pertsonaia irri-emangarri batek baizik– zera erraten du: baina, baina, zombiak ez baitira existitzen! Egia ofiziala ozenki adierazteak errealitatea ukatzeko balio balu bezala, teoriak inolako zalantzarik gabe ikusten ari garen hori ezabatzeko ahalmena balu bezala.

Beldurraren mundutik mugitu gabe, Espainiako Gobernuak propagandarako duen España Global idazkaritzaren bidez bideo bat prestatu du, Espainia paradisu bat dela azaltzeko, dibertsitatearen lurraldea. Azaldu beharra baitzegoen, antza. Altsasuko gazteak kartzelan dauden arren, *Gara* hesteko trikimailu zikina begi aitzinean dugun arren, Katalunian polizia bozkatu nahi zuen jendea gupidagabe jipoitzen ikusi dugun arren, txiolariak eta abeslariak espetxean edo erbestean dauden arren, preso politikoak badiren arren, herritarrei monarkia nahi ote duten edo bederen monarkiaz zer iritzi duten galdegiten ez zaien arren, Espainiako banderarekin bromarik eta ereserkiari txisturik ezin egin den arren, pertsonaia batzuek –naski ongi ordaindutako pertsonaiek– zera erran dute: baina, baina, Espainia askatasunaren herrialdea baita! Freedom Housek ehunetik 94 puntu eman dizkio inkesta batean!

Mundu honetan zombirik ez da. Hori sinetsi eta ihes egiten saiatzen dena izanen da hurrengo biktima. ●

ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com



## "BADIRUDI EITB-RI BIKOIZKETAK BOST AXOLA DIOLA"

**IÑAKI BERAETXE, BIKOIZTAILE EUSKALDUNEN ELKARTEKO KIDEA**

Lan baldintza eskasak direla-eta greba hasi dute euskarazko bikoiztaileek. "Garai batean mila eta piku ordu bikoizten ziren urtean. Hori murrizten eta murrizten joan zen eta azken lehiaketa honetan, 100 ordu bikoiztuko direla esan digute, eta horrek berez esan nahi du ofizioa popatik hartzera doala", dio Beraetxek. "Baina tira, kritika Jaurilaritzari bakarrik ez, harrigarria da gizarteak nola asimilatu duen kontu hau", gizarteen "euskarak ez duelako egun pisu politikorik".

ZUZEU.EUS (2019/02/01)



# Pentsionistak geldiarazi nahi dituzte



JUAN MARI ARREGI

**E**makumeenaz gain, pasa den urteko Hego Euskal Herriko mugimendu sozial garrantzitsuena, zailtzarrik gabe pentsionistena izan da, Espainiako eta erkidegoetako gobernuak mugiarazterainokoa. Mobilizazio horiei esker pentsioak balioz handitzea lortu dute, batez ere baxuenak. Baina aldarrikapen nagusia betetzeke dago oraindik: 1.080 euroko pentsio duina izatea, Europako Karta Sozialak ezarritako gutxienekoa hain zuzen. Gobernu guztiak, izan Madril, Gasteiz zein Iruñekoa, derrigortuta daude zuzenean edo zeharka halako sektore bati erantzuna ematera. Horregatik jarraitu dute mobilizazio jendetsuek.

Mobilizazio horiek geldiarazteko erasoaldi baten aurrean gaude orain, ez baitira gobernuen eta Kapitalaren gustuko. Fronte mediatikoa dute lagun, eta honek bere gerra partikularrari ekin dio, oraindik hasi besterik egin ez dena. Kapitalisten zerbitzura dagoen *El Correok* Bizkaiko pentsionisten talde baten salaketa puztu du, esanez ez diotela “Bilduren eta Podemosen hauteskunde kanpainari ekarpenik egin nahi”. Baina Bizkaiko pentsionistek –Hegoaldeko beste pentsionistekin batera– kalera hainbesteko jendetza atera badute, hori izan da denoi eragiten digun aldarrikapen orokor baten alde ari direlako, talde batekoak zein besteakoak izan.

Pentsionisten mugimendu barruan, jakina, jatorri ugaritako jendea dago, eta ondorioz alderdiek edo sindikatuek ez lukete mugimendua bereganatzeko jolasean ibili behar, are gutxiago hauteskunde bezperan gaudenean. Horrela jokatzeari, gobernuen eta Kapitalaren fronte mediatikoari bazka ematea litzaiteke, nola edo hala gelditu nahi baitituzte pentsionistak. ●



NAFARROAKO PARLAMENTUA

# Mapa berri bat, herriak bizi daitezen

URKO APAOLAZA AVILA @urkoapaolaza

**I**kusmin handiz, urtarrilaren 31n tokiko administrazioaren erreformarako lege proiektua onartu zuen Nafarroako Parlamentuak. Gobernuak sostengatzen duten lau alderdien babesia izan du proposamenak, baita Orain Bai taldeko lau parlamentariena ere –azken orduko azken minutuan–.


Oposizioak gogor kritikatu du legea, ez delako “eraginkorra” PSNren ustez, eta EH Bilduri botere municipalak ematea beste helbururik ez duelako UPNren ustez, “politika sektarioak” egiteko. Baina datu objektiboek bestela diote: 30 urte igaro dituzte Nafarroako udalerriek mapa honen zain; hiru urteko prozesu baten ondorioa da; eta prozesu horretan udalerrietako hautetsien %60k hartu du parte.

Lurraldea hamabi eskualdetan banatuko du, eta mankomunitate nahiz bestelako erakunde atomizatze eta zerbitzuen dispersioarekin amaituko du. Agoitzen, esaterako, horko udalak hiru zerbitzu eskaintzen ditu beste hainbeste mankomunitateren bidez: zerbitzu sozialak, hondakinak eta ur hornidura. Euskadi Irratian Unai Lako alkateak azaldu duenez, Aurre-Pirinioen eskualdea sortuz gero, zerbitzu horiek modu bateratu eta osoagoan eskaini ahal izango dituzte inguruko udalerririk guztiek. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko (NUKF) presidente Pablo Azkona ere oso pozik agertu da legebiltzarrean onartutakoarekin, tokiko administrazioa “modernizatze” ezinbesteko urratsa delako.


Nafarroan datu kezagarriak izan ditugu azkenaldian, despopulaztearekin zerkusua dutenak: NUKFek egindako ikerketa baten arabera, mendialdera ezezik, landa guneko herri handietara ere zabaldu da fenomeno. Mapa berriak lagundu behar luke odoluste horri galga jarri eta Iruñeritik haragoko Nafarroa bizitzeko toki erakargarri bihurtzen. Bestalde, ez harako ez honako egon izan diren ibar eta herriei ere berezko tokia egingo die lurralde egituraketa honek –“Iruñea ondoan gaude, baina Pirinioen ondoan ere bai... Orain arte ez genekien zer ginen ere”, zioen Agoitzeko alkateak–.

Eskualdeak osatzea udalerrien erabakiaren menpe geratu da eta oraindik finantziarioaren gai korapilatsua argitzeke dago. Baina udal maparen proposamenak badu osagai bat aurrera aterako dela pentsarazten diguna: udalek berek diseinatu dutela, behetik gora. ●





**LANGABEZIA-TASA.** 2018ko laugarren hiruhileko datuak eman dituzte, eta irakurketak ugariak izan dira, ohiko moduan. Zeinekin konparatzen dugun gure burua, hori ere bada gakoetako bat. Espainiako Estatuko erkidegoei begiratu beharrean, Europar Batasuneko herrialdeetan jartzen badugu begirada, ikusiko dugu Europar Batasuneko daturik txarrenen artean dagoela Euskal Herrikoa, soilik Grezia, Espainia, Katalunia eta Italiaren aurretik.



## PRESOAK

# 3

Lehen graduko espetxealditik bigarreneira pasatzeko urtarilaren 21a arte euskal presoek egin dituzten 69 eskakizunetatik 66 baztertu dituzte, *Gararen* arabera. 3 baino ez dira onartu.

**15** Euskal presoek %60ak 15 urte baino gehiago daramatza kartzelan eta ia guztiak lehen graduan daude.

## Abandonaturik zegoen Zorokiain herria erosi dute bederatzizko familiak

INIGO IGARTUA @igartua19

Azken hogeitun urteetan ez da inor bizi izan Nafarroako Zorokiainen. Duela bost urte herriaren %70a erosi zuten familia hauek 140.000 euroren truke, EITB-k jaso duenez.

### 28

Hiriko bizitza utzi eta Zorokiain bezalako herri txiki batera bizitzera joateko erabakia hartu dute bederatzizko familiak. Guztira hemezortzi pertsona heldu eta hamar haur dira, Iruñea ingurukoak gehienak.

### AUZOLANEAN

Duela hiru urte herriko eliza erosi zioten Iruñeko apezpikutzari. Auzolanean eliza eta herriko bazterrak konpontzeko elkartzen dira igandero, baina etxeak eraikitzen ez dira hasi oraindik. Herria urbanizatu behar dute lehendabizi, elektrizitatea jarri edo zolaketa lanak egin, besteak beste. "Hirian ikasitako autogestioa eta tankerako balioak, naturarekin praktikan jarri nahi ditugu hemen".

### 100 HERRI HUTSIK

Gaur egun 100 herri hutsik daude Nafarroan eta beste horrenbestek 250 biztanle baino gutxiago dituzte. Azken bost urteetan zortzi herri huts okupatu dira, baina Zorokiaineko kasuan erosi egin dute herriarrek.



### MANIFESTATZEKO ESKUBIDEA JOKOAN.

Jaka Horien mugimenduarekiko neurriak hartu ditu Frantziako Gobernuak. Legebiltzarrean neurri andana hartu dituzte: manifestatzeko debekua, miaketa prebentiboak, bisaia estaltzeak kartzela zigorrak ekarriko dizkie manifestariei...



**NAIZ IRRATIA ETA HIRUKA.** Albiste onak eta txarrak, hedabideen arloan. Naiz irratia baitaiatu dute, Info7ren oinordekoa. FM bidez zabalduko da Euskal Herri osora eta emisio probetan ari dira. Bestalde, Uribe Kostako *Hiruka* babesteko deia egin dute, "hil ala bizikoa" izango den urte honetan.



**EUSKARALDIA.** 2020an egingo den Euskalraldiaren bigarren edizioak bi ardatz nagusi izango ditu. Batetik, hizkuntza ohiturak aldatzen jarraitzea eta, bestetik, entitateek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea: erakunde publikoak, enpresak, saltokiak eta elkarteak izango dira jopuntuan.

# JAKA HORIEN ERRESUMAN GOBERNUA MUTILATZAILE ETA BOLUNTARIOAK SOROSLE

Jaka Horien mobilizazioei polizia frantsesak emandako erantzunak balantze latza utzi du bi hilabetetan: 100 lagun larriki zauritu ditu, horietatik lauk eskua galdu dute eta hamalau gehiagok begia. Gobernuak orokortu du kautxuzko pilota eta GLI-F4 granaden erabilera, ordenari eusteko estrategia gogortzearekin batera. Erreakzioz, manifestari zaurituak artatu eta laguntzeko boluntario talde berriak zabaldu dira. Urruneko kolonietako matxinada eta errepresio giroa Hexagonoko hirietan.

PELLO ZUBIRIA KAMINO @pellozubiria

“Mugikorrarekin Champs-Elyseetan [Parisko kale nagusian] filmatzen ari nintzen eta halako batean jendea aztoratu zen. Atzera egin nuen eta orduantxe sentitu *Flash-Ball* [gomazko pilota] hura nire buruan. Sentitu nuen eskuineko masaila lehertu zidala”.

Horrela mintzo da Axelle Marquise, 28 urte, Mediterraneo ertzeko ostatu batean zerbitzari ari dena, abenduaren 8an Parisen zauritua: erredura larriak masailean, masailezurraren haustura bikoitza, hagin birrinduak, inguruko giharren kontraktura...

Marquiseren zauriak eta lekukotasuna ikus-entzun ditzakezu Youtuben *Mutilés pour l'exemple* [Besteak zentzatzeko mutilatuak] kolektiboak eskegi duen bideoan. Badira irudi gogorragoak. Thomas batek aurpegia orbainez beteta dauka, beste pilotakada baten ondorioz, 25 puntu, sudurra hautsita, ezpain handitua, ezkerreko begia ukituta. Antoinnek, 26 urte, eskumatur moztua erakutsiko dizu, GLI-F4 granada batek txirtxilatu zion eskuineko eskua.

Gertakizunen behatzaile asko harrituta daude. “Flipatu dut polizien bortizkerien irudiak ikusita eta hedabideetan bortxa hori ukatzeko dagoen nahiarekin”, esan dio *Reporterre* hedabide ekologistari David Dufresne kazetariak, 2013an *Maintien de l'ordre* [Ordena zaintzea] liburua plazaratu zuenak. Jaka Horien gaineko zampaketa balantzearen pareko beste bat ikusteko “atzera

egin beharra daukagu 1968ko maiatza arte. Egia da 68an hildakoak izan zirela, baina oraingoan ere Marseillan hil da 80 urteko emakume bat”.

Egoeraren larriaz kezka bera dauka Desarmons-les [Desarma ditzagun] Estatuaren bortizkeriaren aurkako kolektiboko jendeak. 2012an hasi ziren antolatzen, 2000. urtetik poliziak erabilitako armek, batik bat granadek, zenbat herritar zauritzen zuten oharturik. 2014an osatu zuten poliziek zaurituen batzarra, hauei laguntzeko armen kontrako borroka politikoan, biktimo beren zauri larriak artatu eta horiekin bizirauteko bide nekezean laguntzeko eta horientzako kalte-ordainak eta erantzukizunen argitzea ere lortzeko. “David Goliaten kontra bezala ari gara”, esan dute *Ballast* aldizkariak elkarrizketaturik.

Desarmons-leseko kideek zaurituen kontabilitatea ere badaramate. “2001etik 2018ra arte manifestarien artean hiruk galdu zuten eskua eta bik oina. Iazko uztailaren 14an, egun bakarrean, hiruk galdu zuten begia. Oraingoan, Jaka Horien mobilizazioen lehen hiru asteetan gutxienez lauri moztu zieten eskua! Zaurituen kopurua bikoiztu egin da. 18ri lehertu diete begia; urtean pare bat aldiz gertatu ohi zen lehen. Pilotakadek haustura asko eragiten dituzte. Beste zauritu asko zenbatu ere ez dira egiten... Marka guztiak hautsi dira iaz: esan dezakegu 2018a izan dela mutilazioen urtea”.

Ordena zaintzeko eredu frantsesa-

ren oinarri nagusietakoa izan da –Desarmons-lesen analisisian– poliziak eta manifestariak aparte edukitzea, zauriturik egon ez zedin. Horrek esplikatu luke gasaren erabilera hedatua. Harrien jaurtiketak ez zuen, berez, polizien jokatibidean aldaketa berezirik ekartzen, bai ordea Molotov koktelen jaurtiketak: erantzunaren hurrengo graduan, granada negar eragileez gain hedatze-uhinezkoak sartzen ziren, leherkariak.

## MAALOX, BENDAK ETA GEOLOKALIZATZAILEA

Duela 20 urte arrarora zen mobilizazioak sakabanatzeko GLI-F4 bezalako granada eztandagile bat erabiltzea. TNTa darama eta mutilazioak eragin ditzake. Errepresioaren azken graduan usatu zezaketen poliziek, justu talde armatuei tiroka militarki erantzuten hasi aurrekoan.

Lehen graduan erabilitako gasezko granadaren eta TNTdunaren artean zegoen gomazko pilota, Frantziar ingelesez *Flash-Ball* deitzen diotena. Arma post-kolonial tipikoa da, diotenez Desarmons-leseko kideek, berunezko tiroen alternatiba *lightagoa*, bainan gutxitan hil arren zauri larriak eragiten dituen. Metropoliako auzune txiroetan erabiltzen zuten, arabiar jatorrizkoen eta beltzen kontra, ez ordea mugimendu sozialek deitutako manifestazio jendetsuetan ordena jartzeko.

Hori guztia iraganeko kontua da: Jaka Horiei aurre egiteko denak erabiltzeko baimena dauka orain poliziak, gasa, go-



### TOLOSAKO BOLUNTARIOAK

GURUTZE URDINA TALDEKOAK POLIZIAREN  
FLASH BALL BATEK MUSUAN ZAURITUTAKO  
HERRITARRA ARTATZEN, ESPALOIAN.

mazko balak eta granada leherkariak. Gehiago eta gogorragorik ere badauka, ordea: poliziak blindatuak atera ditu kalera Parisen mobilizazio egunetan.

Aspaldiko borroka antinuklearretan ikusiak ziren, berrikitan Notre-Dame-des-Landeseko eremuetan ere bai, "baina oso berria da hirian ateratzea, oso kezkarria. Joan den abenduaren 8an lehenbizikoz eduki dut irudipena sedizio bati aurre egiteko prestatuta zetozela, jendeari tiro egiteko prest. Ez dut uste suzko armaz horniturik zeudenik, baina indar erakusketak balio izan zien: blindatuak agertu ahala jendea desagertu zen! Sinbolikoki esan nahi ziguten: 'Gaur manifestatzen baldin bazarete, armada edukiko duzue aurrez aurre, bere tresna guztiakin'. Horrela heldu gara fase militar batera".

Analisiok iritziak dira, azkenean, baina mobilizazioetan poliziek zaurituak

bai direla errealak. Desarmons-les elkarteak ospitaletik etxeratu ondoko ibilbide mingarrian eskaintzen die laguntza, aholkularitza juridikoa eta medikua baina batez ere laguntza psikologikoa. Biktimok sarritan aurpegia konpondu behar dute, onartu aurpegi berria, edo mutilazioa, eguneroko sekuelak. Onartze eta sendatze bidea arantzatsua da eta hurbilekoak ere ez dira aski oharitzen. Elkarrekin laguntzen die beste zaurituekin harremanetan jartzeko, bileran bezala kafetegian, ezin esanak adierazten, nork bere sendabidea bilatzen, umorea eta ironia barne.

Boluntario talde gehiago sortu dira han eta hemen mobilizazioetan bertan zaurituak artatzeko. AEBetan Vietnamgo gerraren kontrako manifestazioetatik ezagunak izan dira *street medic* karrirako sendagileak. Hari horretatik antolatua

dira gehiago Frantziako Estatuan. Okzitanian Tolosan, Jaka Horiek mugimendu handia eragin duten hiriburuan. Alde batetik, dozena bat boluntario dabilta Gurutze Urdina taldean, *-Street Médic Toulouse-31* Facebooken nabarmen militanteenak. Bestetik, Gurutze Gorria marrazturik daramaten zienta bat sorosle inprobisatu, zauritu oro artatzeko prest, poliziak barne.

Laguntzaileok talde txikietan dabilta mobilizazio egunetan, tartean beti dauzkatena sorospentean adituak, suhiltzaile, mediku edo erizain. Motxiletan daramatzate oinarrizkoenak, farmaziek edo jendeak donatuak: suero fisiologikoa, gasak sumindutako begietan jartzeko *Maalox* antiazidoa, bendak, gasak, gurai-zeak... eta telefono mugikorrek, geolokalizatzaile mugitzeko. Tolosa Ramallah bailtzen ordu batzuek. ●

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f



## HIZKUNTZA INDARTU ZUTELAKO DIRA FINLANDIARRAK HERRIALDE GARATUA



Zergatik diogu beldurra matematikari? Zer dela eta PISA kanpo probaren inguruan sortzen den psikosia? Zergatik finlandiarrak gu baino hobekak dira eskolan? Euskal Herriko hezkuntza sistema eta Finlandiakoa alderatu ditu bere liburuan Aitzol Lasa matematikariak. Zirkulu polarra koadratzeko hezkuntza euskaldun eleanitza giltzarria dela dio.

TESTUA | REYES ILINTXETA  
ARGAZKIAK | DANI BLANCO

### **Matematikaria eta ikertzailea zara. Zein da orain zure lana zehazki?**

Azken boladan Bigarren Hezkuntzako masterreko ikasleentzako testuliburuak ari gara prestatzen, beste unibertsitate batzuetako irakasleekin elkarlanean, Espainiako Síntesis argitaletxearen enkarguz.

Espanian, ohikoa den bezala, hezkuntzan ere lehenbizi araua idazten da, eta gero, handik urte batzuetara, araua garatzen saiatzen dira, edo ez. Bigarren Hezkuntzako masterra abian jarri zenean dekretu bidez ezarri zen nolakoak izan behar ziren irakasgaiak, baina materialik gabe jarri zen martxan. Horrekin batera,

Nafarroako Unibertsitate Publikoan klaseak ematen dizkiet Bigarren Hezkuntzako masterrean matematika berezitasuna egiten dutenei eta Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako maisu-maistrei.

### **Zergatik du horren fama txarra matematikak?**

Goitik behera funtzionatzeko dugun moduagatik. Matematikaren curriculumak beti goitik eta modu zentralizatuan ezartzen da. Zenbat ordu eta zer landu zehazten da, baina gero gertatzen da irakaslerik ez dugula. Matematika ikasten duten graduatu gehienak ez dira irakaskuntzan aritzen. Orduan, nork ematen ditu esko-

lak? Ahal duenak. Normalean beste ikasketak zientifiko eta teknologikoetatik datozen irakasle *birziklatuak* dira eta ahal dutena egiten dute. Horretarako prestaketa ez egon arren, haiekiko exijentzia maila oso altua da.

Kontuan hartu behar da ikasleak ez daudela ohituta pentsatzeagatik ebaluatutak izatera. Katiximak irakasten dira. Buruz ikasi eta hori da ebaluatzen dena. Ikasleak oso azkarrak dira eta gainditzeko behar dutena baino ez dute egiten. Diziplina bakoitzak badu berezko metodologia eta irakasgai batek horren moldaketa izan beharko luke, baina ez da errespetatzen.



Zirkulu polarraren koadratura

NETZER EADA

Antonieta - Zirkulu Ikaslea



# Aitzol Lasa Oyarbide

BARAÑAIN, 1978



Matematikaria, Matematikaren didaktikan doktorea, NUPeko irakasle eta ikertzailea. Irakasleentzako ikerketa materialen egilea da. Euskal Herriko GeoGebra Institutuaren zuzendaria da. Gazteei zientzia eta matematika hurbiltzeko narrazioak idatzi ditu: *Hodeietan* (CAF-Elhuyar saria, 2011) eta *Usategiaren printzipioa* (Nekatoenea saria, 2014). Lehen saiakera argitaratu du: *Zirkulu polarraren koadratura. Finlandia-Euskal Herria. Hezkuntza sistemen noosfera eta elkar-neurgarritasuna* (Pamiela). Bizikleta zalea, txistularia, gitarra-jotzailea eta abeslaria.

## Matematikarako grina duzu, baina hizkuntza eta literaturarekiko ere bai.

Unibertsitatera joaterakoan bi aukera nituen garbi: euskal filologia edo matematika. Bigarrena aukeratu nuen Bilbon ematen zutelako eta nahiago nuen hara joan. Hala ere, ez da batere arraroa. Izan ere, zientzialari gehienei literatura asko gustatzen zaie eta askok oso ongi idazten dute.

## Nondik dator zientzia-letrak dikotomia?

Hezkuntza sisteman behartzen zaituztelako bide hau edo bestea aukeratzera eta ez dira bestelako bide mistoak kontuan hartzen. Finlandiako hezkuntzaren ezaugarrietako bat hori da, hain zuzen ere: moduluak dira eta ikasle bakoitzak hautatzen ditu libreki zeintzuk ikasi nahi dituen eta noiz.

## Hemengo hautazko ikasgaien sistema ez da gauza bera?

Hemen teorian bada aukeraterik, baina ikastetxeen antolaketa beharregatik azkenean hautazko horiek paketeetan eskaintzen dira, ez banaka. Badirudi aukeraterik badagoela, baina irakasgai multzoak dira. Finlandian 75 modulu osatu behar dituzte, tutore baten laguntzarekin. Horren ondorioz, adibidez, adin desberdineko ikasleak biltzen dira modulu berean. Hori da benetako aukera.

## Euskal Herrian dauden hezkuntza sistemak eta Finlandiako alderatu dituzu. Finlandia estatua da eta gu ez. Nola egin duzu alderaketa?

Alderaketa egina dago finlandierazko murgiltze ereduaren eta euskarazko murgiltze ereduaren artean. Hori da alderagarria den bakarra. Hezkuntza sistemen antolaketa administratiboari buruz ez da asko hitz egiten liburuan. Hori ezin da alderatu hemen EAEk, Nafarroak eta Euskal Elkargoak hainbat ezaugarri partikular dituztelako, baina gizarte eredu aldera daiteke. Gizartean dauden us-teak edo adostasunak konpara daitezke.

## Alderaketa horretan PISA azterketaren emaitzak datozkigu segituan burura. Zergatik dira gu baino hobek beti?

PISA proban lehenbiziko postuetan egoitea lortzen dute hezkuntza sistema bakarra eta kohesionatua dutelako. Oinarria da ulermenari berebiziko garrantzia ematea, eta kito, ez dago beste misteriorik. Lehen Hezkuntzako eskolari ulermen eskola esaten diote. Haiek bezala-

koak izan nahi bagenu hizkuntza eredu bakarra izan beharko genuke, bateratua eta homogeneous. Guk PISArekiko dugun katastroferik handiena da, uste dugula publiko-itunpeko eta hizkuntza ereduaren araberrako hautaketa familiengan uzteak onura ekartzen diola gure sistemari, eta oso oker gaude. Aukeraketa horietako uste guztiak ideologikoak dira, eta ez dute oinarri pedagogikorik.

## Zergatik diozu zure liburuan Finlandian PISA ez dela helburua, baliabidea baizik?

Han ikuskaritza administratiborik ez dute, hemen dugun bezala. 90eko hamarkadan krisi sakona izan zuten eta hori kentzea erabaki zuten, dirua arrazteko asmoz. Horren orde, ELGA Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak sortutako PISA proba hartu zuten haien lanaren autoebalua-zioa egiteko tresna. PISAren emaitzetatik informazioa ateratzen dute, gero haien hobekuntza planak egiteko. Hemen, aldiz, sailkapen horretan gora egitea da helburu bakarra. Irakurketa planak dira horren adibide garbiak. PISAren arabera gure ikasleek irakurketan ga-beziak dituztela esaten dugunean erne ipintzen gara eta berehala irakurketa planak jartzen dira abian. Gehienetan, gainzamak dira irakasleentzat.

## Eta ez al da egokia?

Kasu jakin horretan ez da plan isolatu bat egin behar ikastetxean, baizik eta herriko liburutegiarekin lan egin irakurzaletasuna bultzatzeko, adibidez. Hemen epe laburreko neurri solteak hartzen dira eta ez doaz inora. 2006an gertatu zen. PISAko Nafarroako datuak oso txarrak izan ziren eta 2009rako "normaldu" ziren, plan horietako bat ezarri ondoren. Horrek, hala ere, ez du batere segidarik izan. Gaur egun inor ez da horretaz oroitzen. Ematen du hurrengo zaplaztekoaren zain gaudela, beste adabaki bat jartzeko. Beldur naiz, orain Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri duten irakurketa planaren ibilbidean ez ote den gauza bera gertatuko.

## Irakasleen trebakuntzari dagokionez, zeintzuk dira alde nagusiak?

Irakasle lanbidea prestigio handikoa da Finlandian, irakasle izateko ikasketak dauden eta gogorrenak baitira. Bost urteko berariazko ikasketak prozesua amaitutakoan, ikastetxeetako zuzendariak zuzenean hautatzen dituzte irakasle ti-



tuludunak. Ez dago oposaketarik. Aldi berean, udaleko alkateak izendatzen du ikastetxeko zuzendaria, zentroak municipalak direlako. Irakaslea ikertzailea ere bada. Pedagogian eta didaktikan ikertzeko eta hobekuntzak egiteko teknikak ezagutzen dituenek, irakasleak ez du behar Ministerioaren curriculum orokor bat. Hori da gure esku ez dagoen gauzetako bat. Noizbait gure sistema bagenu, horretaz hitz egin beharok genuke hasiera-hasieratik.

### **Euskal Herriaren egoera soziopolitiko honetan zer egin liteke?**

Desiren eremuan sartzen gara, baina sistema bateratu bakarra eta, aldi berean, malgua behar da. Horrek esan nahi du bertakoa den hizkuntza batean, gure kasuan euskaraz, egituratu behar dela. Eneko Bidegainek *Lurraldea eta herria* lanean planteatzen du gauza batzuk ez daudela gure esku, baina beste batzuk bai. Hiru administrazio daude Euskal Herrian. Hezkuntza gure eskumenetako bat da eta askoz gehiago egin genezake elkarrekin lan eginez gero. Espainiari ez diogu begiratu behar, esate baterako, Nafarroan Euskararen Legea aldatzeko eta zonifikazioa bertan behera uzteko. Gure etxeko lana da.

Bidegainek proposatzen duen bide-

tik abiatuta, adibidez, mugaz gaindiko curriculuma osa genezake, gure hiru eremu administratiboek partekatuko luketen eremu berria. Curriculum berri eta propioa, ez erdaraz ematen denaren kopia bat.

### **Gero eta gehiago dira hezkuntza negozio gisa begiratzen dutenak?**

Bai, hala da. Zirkulua koadratu nahi badugu, eskolen autonomiari positiboki eragiten dioten dinamika guztiak aintzat hartu behar dira, baina dinamika horiei kontrajarriak daude merkatu kapitalistak, hau da ELGA erakundeak bultzatzen dituenak. Alde batetik, argi dago enpresek ikastetxeen eta irakuntza sistemaren kudeaketan esku

hartzeko asmo garbia dutela, eskolak landu behar dituen edukiak eta gaitasunak baldintzatu nahi dituztelako. Enpresek eskola ikusten dute euren etorkizunerako lan-eskua produzitzeko fabrika baten gisa. Eskolan pentsamendu kritikoa lantzea denbora galtzea dela iradokitzen dute. Eta beste alde-

tik, begi-bistakoa da enpresak negozio bila ari direla alor honetan: ikastetxetako zerbitzuak eta frankiziak eskaintzen dira gero eta gehiago. Garai batean kalitate ziguilua banatzen ziren eta orain programak saltzen dira.

**“**  
**Hezkuntza kontuetan ematen du hurrengo zaplaztekoaren zain gaudela, beste adabaki bat jartzeko**



### **PISA ZER DEN ETA ZER EZ DEN**

“Norberaren egoerari buruz diagnostikoa egiteko balio du PISAk, baina ez dago diseinatuta hezkuntza sistemak konparatzeko, herrialde bakoitzaren *noosfera* desberdina delako. Ikastetxeak elkar-eragina du gizartearekin, eta konexio funtzional horri *noosfera* esaten zaio”.

### **HIZKUNTZAREN GARRANTZIA**

“Ezin da finlandiar hezkuntzaren arrakasta ulertu hizkuntzaren bizi-raupenarekin duen lotura aintzat hartu gabe. Zirkulu polarra koadratzeko, hezkuntza euskaldun eleaniztuna behar dugu”.

### **FINLANDIA ETA BIZIRAUPENA**

“Sortu dugu irudi bat non Europako iparraldeko herriak oso kultu, jakintsu eta aberats diren, baina finlandiarrek pobretzat dute beren burua. Bost milioi eta erdi pertsona besterik ez dira; baliabide natural urriko eremua da eta aspaldidanik Suedia eta Errusiaren menpe bizi izan dira. Hori dela eta, biziraupen kulturalerako estrategiak garatu behar izan dituzte eta hezkuntza sistema horretara bideratu dute ehuneko ehun. Duela mende bat, hemen Unamuno euskararen kontura barrabaskeriak esaten ari zenean, eta oro har euskara gutxien zenean, finlandiera ehiztari eta arrantzaleen hizkera literaturagabea izatetik estatu hizkuntza izatera pasa zen. Hori izan zen lehen urratsa”.

### **HEZKUNTZAREN NEGOZIOA**

“Enpresak eta unibertsitate pribatuetako fundazioak, gure gertukoak ere bai, espezializatzen ari dira diru publikoa jasotzen, ikastetxeetan ustezko hobekuntzak ezartzeko argudioarekin. Gero, ikastetxe erosleek erositako marka saltzen dute beren burua ezagartzeko: ‘Gu Montessori gara’ edo ‘gu gara ez dakit zer’. Hori ez doa ino- ra. Enpresak ari dira administrazio publikoen dirua arpilatzen”.



**Horietako bat da Kiva, Ikastolen Elkartek ikastetxeetan ezarri duena?**  
Bai. Eskola jazarpen-indarkeriari aurre egiteko proiektua da. Hasiera batean Finlandiako Turku hiriaren aldirietako bi ikastetxeren problematika zehatzak tratatzeko proiektua zen. Ikastetxeetako eta unibertsitateko adituak elkarrekin hasi ziren lanean. Gerora, irakasleen etengabeko trebakuntzaren testuinguruan diseinatutako hezkuntza berrikuntza horri protokolo izaera eman zaio, eta produktu gisa saldu da atzerrian.

**Joera horri nola egiten ahal zaio aurre?**  
Herrietako eta auzoetako harreman horizontalak indartzen baditugu, hori da modu bat besteari galga ipintzeko. Adibide zehatz bat: hemen, Nafarroan, arazo larria dugu irakasleen trebakuntzarekin eta badirudi inork ez duela konpondu nahi. Hezkuntza Sailak ikastaroak antolatzen dituenean ezin ditu erabili NUPEko instalazioak. Ordaindu behar dizkio. Horiek mugak dira. Nola planteatu dezakezu berrikuntza pedagogikoa baldintza horietan? Herriko baliabide publiko guztiek denon eskura egon beharko lukete.

**Gurean eskola txikien filosofia izan daiteke sistema berri horren hazia?**  
Bai. Eskolak izan behar du ongizateari begiratzen dion entitate eta herriko kolektiboekin eta udalarekin lan egiten duena. Tokiko produktuak eskolako sukaldeetan erabiltzea eta gisa horretako esperientziak dira behar ditugunak.

**Nafarroan zerbait aldatu al da gobernu berriarekin?**  
Nafarroaren egoera partikularra da, egoera globalaren adibide garbia. Hezkuntzari buruzko kontsentsurik ez dago eta bandoen artean elkarri harrika egiteko erabiltzen da. Azken lau urteotan, zailtasunak zailtasun, saiatu dira inertzia batzuk apurtzen eta eztabaida piztu da. "Aukera ezazu nahi duzuna eta utzi niri egiten nahi dudana" da jokamolde nagusia, baina ez da ona. Gizarte ez kohesionatua eta kalte ugari dakartza. Gobernuaren saiakera, behintzat, polita da. Horregatik behar da beste legealdi bat gehiago, gutxienez, bide honetatik segitzeko, baina oraingoz ezin jakin zer gertatuko den hauteskundeetan. Nahiko interesgarri dago, ezta? ●



## Kalean da otsaileko

# aizu!

- Estepan Aldamiz-etxebarria arin-arin
- 21. Korrikak, omenaldia Txillardegiri
- Patata tortillaren jatorriaz
- Gorte kalean, Dantzaka
- Erraia: autoedizioa auzolanean

**Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €**  
[aizu.eus](http://aizu.eus)





# Iritziak

## Eurobozak



**ESTITXU GARAI ARTETXE**  
EHU-KO IRAKASLEA  
@egarai

**E**uropako hauteskundeak bigarren mailako hauteskunde gisa hartu ditugu historikoki. Arrazoiak bat baino gehiago izango dira seguruenik, baina badirudi Europar Batasunaren (EB) egitekoa argi ez ikusteak eta interes eta informazio faltak badutela zerikusia. Halere, globalizazioaren garaiotan, Estrasburgo eta Brusela gero eta hurbilago ikusten ditugu. Ez hori bakarrik. Azken hamarkadan, argi geratu da Europaren itzala noraino iristen den. Batetik, krisi ekonomiko deitzen dioten horren kariatara, estatuen gobernantza ekonomikoa Troikak ezarritako baldintzen arabera izan da: austeritatea, defizit muga eta zorraren kontrola ikur. Estatu guztietan berdin aplikatu ez den arren, oro har, ongizate estatua gogor kolpatu dute neurriek, gastu publikoa mugatzeak gastu sozialari eragin baitio zuzenean eta langileen baldintzak ere dezente okertu baitira han eta hemen. Beste gai batzuetan ere hartu du protagonismoa EBk: migrazio krisiaren kudeaketa, euro-eszeptizismoaren gorakada, *brexita*, eta abar. Kataluniako aferan, urriaren 1eko jazarpen gogorraren eta errepublikaren aldarrikapenaren aurrean ere, bazen Europatik etorriko zen erantzunean fedea zuenik. Biharamuna, ordea, hotza izan zen eta ez zen esperotako babesik iritsi.

Udal eta foru hauteskondeekin batera izateak horretan lagunduko ez duen arren, badirudi datozen eurobozek gu-

**Hauteskundeak pasako dira, baina garbi dagoena hau da: estaturik gabeko nazioen aliantzak lortzea eta indarra batera egitea funtsezkoa izango da zerbait lortu nahi bada**

rean beste protagonismo bat har dezaketela. Kataluniako prozesu subiranistaren aurkako epaietaren erdian izango direla aintzat hartuta, Espainiako Estatuaren demokrazia falta Europaren aurrean salatzeko bozgorailu gisa profitatu nahi da hauteskunde-hitzordua. "Orain errepublikak", EH Bildu, BNG eta ERCK osatutako koalizioa izan da aurkezten lehenengoa. Oriol Junqueras izango du zerrendaburu. Erabaki horrek epaietari Europako dimentsioa ematen lagunduko du.

Oraindik EAJ eta PdCATek ez dute argitu 2014ko koalizioa errepikatuko duten ala ez (agian artikulua argitaratzerako jakingo da). Egin dituzten adierazpenetan aldeko giroa nabari da, baina oraindik akordioa ez dago itxita eta bi alderdien estrategia politiko eta progra-

matiko hainbatek bidea zaildu dezakete. Kartzelatik Jordi Turullek bere prestutasuna azaldu du zerrendaburu izateko. Junqueras-ekin batera, bi zerrenda ezberdinetan politikoki jazarria den beste politikari bat europarlamentari aukeratzeko, lehen aipatutako zabalpena hantutuko luke. Alta, ez dirudi EAJ estrategia horretan oso eroso egongo litzatekeenik. Beti mantendu du distantzia Kataluniako prozesu independentistarekin eta ez du ematen horrelako konpromiso maila hartzeko prest agertuko denik. Izaskun Bilbaoren eserlekua bermatuta izango luke Compromiso por Galicia eta Coalición Canariarekin duen akordioaren bidez. Edonola ere, EH Bildu hain koalizio indartsuan joateak eragina izango du, eta pentsatzekoa da EAJk nahiko duela jendaurrean pareko aliantza batekin agertzea. Ikusteko dago.

Hauteskundeak pasako dira, baina garbi dagoena hau da: estaturik gabeko nazioen aliantzak lortzea eta indarra batera egitea funtsezkoa izango da zerbait lortu nahi bada. Ez bakarrik Espainiko Estatuaren baitan, baizik eta mugaz gaindi, partida gero eta gehiago jokatzen baita European eta nazioartean. Erabakitze eskubidea agendan jartzea eta eragile ezberdinak gai honi buruz posizioa hartzea behartzea izango da gakoa. Horretarako, besteak beste, Europara bidaltzen ditugun ordezkariak badute bere garrantzia. ●

# Sendabideak



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

**G**arai batez, zailtasun sozialean ziren familietako neska gazte-  
txoak, sistema sozio-ekonomiko  
zapaltzailean ahal bezain guti parte  
hartu nahian, eskulangintzan planta-  
tzen saiatzen diren: bitxi edo apaindu-  
ra ekoizpen lanetan lorarazten zituz-  
ten beren sortzeko gaitasunak. Egun  
aldiz, sistema sozio-ekonomiko libera-  
la ez elikatzeko edo berdin oztopatze-  
ko helburuarekin, gisa horretako nera-  
beek izadia eta gorputza xede dituzten  
lanbideak dituzte hautatzen: naturo-  
pata, masaje-emaile, hipnotizatzaile,  
yoga irakasle eta horrelako ofizioak  
dituzte gogoko, ongizatea eta natura-  
rekin egiazko harremanak sustatzen  
dituztenak. Hori dit behintzat kontatu  
Baionan ari den hezitzaile batek.  
Gazte horietako anitzek formakuntza  
lasterrak jarraitzen dituzte, aste edo  
hilabete zenbatekoak, eskola pribatu  
garestitan gehienetan, eta delako ikas-  
ketak bururatu orduko berehala aditu  
gisa instalatzen omen dira.

Gure inguruan begiratzea aski da: na-  
turopata edo hipnotizatzaile bakarren  
bat bada, bezeroa hari beha egoten da.  
Egoera horrek gogoeta zenbait egina-  
razten dizkit. Bi belaunaldiz hautsi da  
izadiari buruzko ohiko ezagutzen trans-

misioa, bai etxeetan, bai gizartean, aurre-  
rapena eta modernizazioaren izenean.  
Sendabelarrei, zuhaitzei, landareei, ilar-  
giari eta izarrei buruzko jakitatea ez da  
gehiago belaunaldi batetik bestera iga-  
narazten, sorginkeria eta atzerapen ikur  
bailiran. Ulergarri da, alabaina, jendar-  
teak eta bereziki miseriaz ase den gaz-  
teriak berreskuratu nahi izatea jakitate  
hori, modernitateak gaitza, pozoia eta ku-  
tsadura erakarri duelakoan.

Bizkitartean, iruditzen zait aipa-  
tutako nerabeak okertzeko arriskuan  
daudela: hautatzen dituzten forma-  
kuntza gune franko bada seriositasun  
eskasekoa. Nola posible liteke zorbait  
astez edo hilabetez ezjakina sendagile  
bihurtzea, aitzineko gizaldiek mendez  
mende eraikitako jakitatea zerabilte-  
nean? Eta mediku klasikoek zazpi urte-  
tez gutxienik ikastera dedikatu behar  
dutenean? Gainera, sektak ez dirateke  
urrun: nola segur izan halako edo ho-  
lako labelpean dagoen eskola horieta-  
ko irakaspena ez dela iluminatu baten  
menpeko? Hain zuzen ere, anitzetan  
eskola bakoitzak bere historia eta sa-  
rea baditu: nola jakin zuzen horien  
nondik norakoak? Irakasle gisa, nik  
bederen ez nekike gaztetxo bat nola  
lagundu arlo horretan bide sendorik

hartzeko, eta pertsonalki medikuntza  
alternatiboari funtsez dei egin nahiko  
banio, ez nekike nondik jo.

Argi dena da eszeptizismo eta mes-  
fidantza orokortuaren garaian bizi ga-  
rela: medikuntza eta jakitate klasiko  
edo ofizialek, sistema neoliberalarekin  
lotuak direlako, norbera okaztatu de-  
zakete, eta delako metodo alternati-  
boek berengana erakarri. Baina nola  
jakin bide horiek onak ala itsuak diren,  
neoliberalismoak eragin sasi bideen  
artean? Publizitateak goraiatzen du  
ongizate indibiduala, multinazionalen  
probetxurako; beren aldetik, sektak  
proposatzen dituzte meditazio eta ba-  
raualdi-egonaldi garesti eta lanjero-  
sak. Horien artetik, nola ezagutu egiaz-  
ko sendagile alternatiboa, ez ohiko  
sendabide sanoak funtsez aholkatuko  
dituena?

Egoera honetan, argigileak garen  
guraso eta irakasleok gazteengan  
nehoiz baino gehiago garatu behar du-  
guna da, ene gustuko, espiritu kritikoa  
eta jendetasuna, bai meneko gaituen  
sistema eta garaiari begira –ez dukete-  
nak beharbada gaitzespen urrikigabea  
bakarrik merezi– bai itxaropena edo  
zoramena sorrarazten dizkiguten bide  
zentzugabeei begira. ●

## Erraztuz



IÑAKI MURUA  
BERTSOLARIA

Zenbat hauts, zabor... ez ote du ezkutatu erratz, gisats edo dena delakoak. Garai batean txilarrarekin eginak, lurra lakarragoa eta zaborra lodiago zegoelako, agian, baina, orduan ere goxatu eta leundu ohi genuen, menda fin sorta bat erratz buruari bueltan ezarrita eta zeinen lurrin goxoa itsasten zien ohol distiratsua bezain aspaldikoei. Natura natural etxeratzen genuen eta merke, sano...

Duela gutxi, Zaldibiako herrian hone-la ikusi nuen horman idatzirik: "Erratza eman ziguten eta hegan ikasi genuen". Hamaika ikusteko jaio ginen dio esaerak eta hamaika jaio ginen ikusteko, esan omen zuen beste hark. Kontua da, batek ezina eta traba besterik ikusten ez duen lekuan, besteak aukerak ikusteko gaitasuna duela eta hortxe hasten da porrota ala arrakastaren mugarrira etorkizuna eta geroa bereizten.

Barañainen izan ginen larunbatean, urtarrilaren 26an, aldizkari honek bere ehun urteurreneko sari banaketaren biharamunean -Zorionak bidenabar- eta han ere erratza izan zen protagonista, Bertso Eskolen eguneko emanaldietan, izan ere, zenbat hala-moduzko gai, bertso, ateraldi, pota eta abar ez dute ezkutatu bertso eskoletako erratzek, baita gure nahia eta abileziak bat eginda,

hamaika artelan, irudi eta irudimenezko erditze erraztu ere! Beti jarri du Bertso Eskolako erratzak errespetu puntu bat, baina oinarritzko konfiantza ere bai, lehen pausoak ematerakoan ttittili potto antzean zabu eta balantxa dabilen hitz totelari.

Lehengoan, gainera, herriko ikaste-txeari kantu bat egiteko sormen lana helburu izan zuen Andoni Egañak, Xabi Zabalak eta Alberto de Abajok osatutako ekipoak, han bildutako ikasle eta gurasoen ekarpenak bideratuz. Oso ekintza parte-hartzailean (hala behar kantua berena sentitzekotan!) eta garuna majo bihurrituta, tantaz tanta, lortu zuten hangoen aho batezko oniritziarekin, bi estrofa eta leloa sortzea, mezuz, edukiz, neurritz, formaz aproposa zelako konformidadean eta kantatzeko egoki musikaturik. Noski, Andoniren kasuan, eta bera izan zen ardatz kantuaren hitzak sortzerakoan, bertso eskolak ematen duen ausardiaren abiapuntua baliatuz eta urteetako eskarmentuaren bizi eskola berme, zenbat eratako sortze lanak gauzatu daitezkeen frogatuta utzi zuen. Denak bikain! Ordu eta hiru laurden halako ziztuan ezta ametsik onenean ere!

Gutxi batzuk soa sortzaile, bide berri bila, errazten eta errazten gozatuz doazen bezala, askok begirada galdua du... ●

## Fakir



ITXARO BORDA  
IDAZLEA

Rakurketa gozagarria izan da, enetzat ere, Harkaitz Canoren *Fakirren ahotza!* Fikzioaren eta errealtatearen txirikordatze ederra obratzen du idazleak, batzuetan Imanol Lurgain, Imanol Lartzabal (1947-2004) bera dela eta besteetan ereditik urrun agertzen zaigula, errealtatearen konkrezio gisa. Imanolena, egiaz, pertsonaia egokia da, 60-90 hamarkadetan euskal jendarteak bizitu zuen bilakaera politikoaren islatzeko: ETaren alde izatetik ETaren kontra azaltzera iragaten zela, bereziki *Yoyes*-en (*Arakis*, eleberrian) hilketatik lekora, baina ez bakarrik.

Arazo bat bada hala ere, fikzioan bezain errealtatean. Ematen du Imanolek bere bukaera hitsa nolabait berak bilatu zuela, matxista zabarra, afrantsesatua edo beldurraren aurka altxatu zelako. Uste dut merzei duela, gaur, oroitzeak Imanolek jasan boikota, ezker abertzalegotik antolatu zela eta bazterte deiak publiko egin zirela, petizio orrialdeetan lerrokatzen baitira, zurian beltz, kantari, bertsolari eta kontzertu muntzaile elkarteen izenak. Nobelan, errelatoa nork egiten duen, euskal gizarte horren (gure?) ardura kolektiboa garbitzen da, poeta kaxkarra bere *hubris*-aren biktima izan zela ondorioztatzen utziz. ●

# Is(h)ilik



**ANA MENDIA**  
EMAGIN EGOILIARRA

**M**ila bider amestu zuen bere erditzea; makina bat aldiz irudikatu bere burua bular biluziaren gainean jarriko zuen txikiaren azal leunari kilimaka; askotan galdegin zion patuari zein zapore izango ote zuen lehen musuak. Sekula ez zuen imajinatu, ordea, hildako haurra munduratuko zuenik.

Naturaren kontrakoa dirudi lehenbizi hil eta ondoren jaiotzea, baina gupidagabea da errealitatea. 2017an amaren sabelean haurdunaldiko 22. astetik aurrera edo jaio eta lehen astean gertatutako 94 heriotza erregistratu ziren EAEn. Zehaztutako garaira heldu baino lehen gelditu ziren beste bihotz asko, noski. Gurasotasunaren itzala, ordea, ez da lantokiko kafe-makina parean aipatzen.

Gelako atea. Emagina zen. Sehaska zekarren. Bikotearen eskua heldu eta erditze-gelan burua irtetear zegoela azken bulkada hartan egin zuen bezalaxe eskatu zion barru-barrutik: eman maitasuna. Gogora ekarri zuen emagin berak ordu batzuk lehenago esan ziena: existitzen ez direnean sortu egin behar dira oroi-tzapenak. Huraxe izan zuten umetxoak lehenengoz eta azkenekoz laztantzeko

Zaila da isiltasuna entzutea  
negarra espero denean.  
Mingarria. Baina amaren  
umetokia edo ospitaleko  
sehaska besterik ezagutu ez  
dutenen heriotza aitortzea  
ezinbestekoa da

aukera bakarra. Jarri zuen bular biluziaren gainean; kilimatu zuen txikiaren azal leuna. Eman zioten musu. Bitxia da, baina irudi mingarri hartan bazen ederra zen zerbait.

Haurra estaltzen zuen izara, txanoa eta txikiaren oin eta eskuen aztarnekin egindako marrazkia bildu zituzten. Ohartu ziren gela hartatik 39 astetan ereindako ilusioa kutxa batean gordeta irtengo zirela. Sabela eta besoak hutsik; are hutsago bihotza. Azkenekoz begiratu

zuten sudur polit hura: “Ez zaitugu sekula ahaztuko”.

Zaila da isiltasuna entzutea negarra espero denean. Mingarria. Baina amaren umetokia edo ospitaleko sehaska besterik ezagutu ez dutenen heriotza aitortzea ezinbestekoa da. Familiak dolurako eskubidea dute; negar egiteko askatasuna merezi dute; etxeko atetik barrura bizi dutena kalera ateratzeko aukera. Labankada gehiegi jasotzen dituzte: “Gazteak zarete”, “Helduko da beste bat”, “Denborak sendatuko du”. Agerrikoa da alboan dugunaren atsekabea arindu beste nahirik ez dugula; baina konturatu gabe mina zorroztea besterik ez dugu lortzen.

Akaso utopia leporatuta atxilotuko naute itxaropentsuen kartzelan, baina egia bistaratzeko normalizazioaren metxa pizten duela uste dut. Horregatik sentitu dut idazteko beharra. Ezin ditut begiak itxi. Ez da zilegi. Ze ofizio dut ongi etorrian laguntzea; baita agur esan behar denean alboan egotea ere.

*\* Oin txikiena ere betiko aztarna uzteko gai da. ●*


www.bertsozale.eus
Samerak www.bertsosamerak.eus atarian salgi

## TUTERA

Otsailak 9. 17:30ean, Muska Eskolan

Ainoz Karrika Iribarren, Eneko Fernandez Meritxalo, Alamo Untxoia Erregimena, Mikel Lasaeta Cia, Joana Zizenda Olano eta Saioa Kerasotxe Martinez

Gai-jartzailea: Maider Bolano Erdoimena




Artistak

## URDAZUBI

Otsailak 10. 17:30ean, Kultur Etxean


Julia Soto Eakundia, Seioa Alkaiza Guñas, Iker Gorosterrazu Elizagorri, Iban Garro Alzuri, Iñaki Mujale Itza eta Sahats Aleman Sainza


Gai-jartzailea: Ainhoa Larrazola Aguirre



Laguntzailea

**Nafarroako Bertsolari Txapelketa**  
2019





# SAGARRONDOTIK SAGARDORA

## 2019KO IKASTARO PRAKTIKOA USURBILEN

Kimaketa  
praktikak  
bertako  
sagastietan  
egingo dira!

**Otsailak 16:**

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA ETA ONGARRIKETA.

Aitor Etxeandia

**Martxoak 2:**

FRUITU ARBOLEN UDABERRIKO EDO ZOTZEKO TXERTAKETA.

Josu Osa

**Martxoak 23:**

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIXOTASUNAK ETA

TRATAMENDUAK. Aitor Etxeandia

**Apirilak 6:**

GARBITASUNA SAGARDOAREN KALITATEAREN LAGUN.

SAGARDOA EGURREZKO ONTZIETAN. SAGARDOAREN HISTORIA

BAT, ZER IKASTEKO?. Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondo

**Maiatzak 18:**

ILARGIA ETA EGUTEGI BIODINAMIKOA

Xabier Akizu

**Ekainak 1:**

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK.

Aitor Etxeandia

**Uztailak 13:**

FRUITU ARBOLEN UDAKO EDO BEGIKO TXERTAKETA.

Josu Osa

**Irailak 7:**

SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK. ETXEAN SAGARDOA

EGITEKO HASTAPENAK. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain

**IKASTAROEN ORDUTEGIA: 9.00etatik 13.00tara**

**LEKUA: Potxoenea Kultur Etxea (Usurbil)**

Ikastaro osoaren prezioa: 96€ (Alkartasuna Kooperatibako bazkideek DOAN)

Egun solteetan izena ematea ere badago; jarri Alkartasuna Kooperatibarekin harremanetan.

**IZEN EMATEA: 943 36 11 14 [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) edo**

**On line: <https://www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak>**





VENEZUELA

# HOGEI URTEZ INPERIALISMOAREN JOMUGAN



Bi hamarkada bete berri dira 1999 urtean Hugo Chavezek lehendabizikoz hauteskundeak irabazi zituenetik. Orduetik, chavismoarekin amaitzeko saiakera ilegal edo ta kolpistak ugariak izan dira. Urtarrilaren 23tik indarrean dagoena estatu kolpe saiakera bat gehiago da, baina baita aspaldiko sendoena eta prestatuena ere. Zein da egoera? Nola heldu gara honaino?



JUAN GUAIDÓ BERE BURUA VENEZUELAKO PRESIDENTE GISA IZENDATZEN.

**M**endebaldeko demokrazia kapitalistentzat, gainditu ezinezko muga gorria ez da demokrazia; kapitalismoa eta bere interesak baizik. Horregatik egiten zaio gerra interes horiek kolokan jartzen dituen orori: berdin dio botere instituzionala bozka edo arma bidez eskuratu den, berdin sistema politiko demokratiko edo diktatoriala dagoen indarrean. Gerra egiten zaio garaiko Sobietar Batasunari edo Espainiako Errepublikari, gerra Kubari, Libiari, Hamasi edo Venezuelari. Ez zaio gerrarik egiten interes horien mesedetan aritzen denari: ez AEBei, Saudi Arabiari, Marokori, Espainia frankistari edo Videlaren Argentinari.

“Ez dakit zer dela eta onartu behar dugun herrialde bat komunista bilakatzeari bere herritarren arduragabeke-riaren ondorioz. Gai garrantzitsuegiak dira bozka emaila txiletarrentzat, euren kabuz erabaki dezaten”, adierazi zuen Henry Kissingerrek Allenderen Txileri buruz. Ondorioak ondo gogoan ditugu. Latinoamerika osoan herritar arduragabeak biderkatu egin ziren garai batean. AEBek ahal beste diktadura militar hauspotu zituzten kontinente osoan, jendarte osoaren berreziketa eta garbiketa helburu: Brasil, Txile, Argentina, Nikaragua, Guatemala, Uruguai... Belaunaldi oso batek irakaspenak barneratuak zituela pentsatuta eta, hortaz, era arduratsuan

jokatuko zuelakoan, diktaduren zikloa itxi eta demokrazia neoliberalena zabaldu zen, bozka eskubide eta guzti.

Xabier Arruti Imaz lazkaotarra 1981ean heldu zen Venezuelara errefuxiatu gisa. Garai neoliberalak ezagutu zituen. Baita Chavezen estreinako garai-pena ere, 1999 urteko hauteskundee-tan. Iraultza bolibartarrean buru belarri murgildu da. Egun Monseñor Iturriza udalerriko alkatezaren zuzendari orokorra da eta gobernu egituretan hainbat kargu izan du urteetan. Bi aberri dituela dio, jaiotzen ikusi zuena eta altzoan hartu duena. Chavezena Latinoamerika osoan ziklo neoliberala irauli eta ziklo aurrerakoa abiatzeko lehen hauteskunde garaipena izan zen –ahaztu gabe, indar ez-kertiar zein aurrerazaleen hauteskunde garaipenak aurretik borroka herritarrek sortutako testuinguru berrietan gertatu zirela-. “Venezuelak ezkerrearen birjaiotzea ekarri zuen Latinoamerikara. Kuba zegoen soilik, isolatua eta bakarrik, Nikaragua aspaldi galduta”, dio Arrutik. “Gero etorri ziren Kirchner Argentinan, Lula Brasilen, Evo Bolivian... gobernu ez-kertiarrak edo behintzat aurrerakoiak”. Batzuk herrialdeko eliteen pribilegioak auzitan jartzera heldu ziren, Venezuela tartean. Beste batzuk ez. Baina denek sustatu zituzten Latinoamerikako herrien arteko aliantzak barnera begira

eta Mendebaldeaz gaindikoak kanpoan, Txinarekin nagusiki.

Onargarriaren marra gorri estuak gainditu zituztela iritzita, berriz ere jendartearen berreziketari heldu zioten tokian tokiko eta Mendebaldeko eliteek –bereziki AEBetakoek-. “Celayaren aurkako Estatu kolpea etorri zen Hondurasen, Paraguayo Fernando Lugo boteretik kenarazi zuten, Dilma Rousefen aurkako prozesua eta Lularen espetxe-ratzea Brasilen, Cristina Fernandez aurkako prozesuak Argentinan eta beste”, aletzen du Arrutik.

### GUAIIDOREN ETA AEB-EN ESTATU KOLPEA, AZKEN SAIKERA

Oposizioa eta AEBak denetarik egiten saiatu dura hogeitau urteotan chavismoa botere instituzionaletik kanporatzeko. Esaterako, 2002ko estatu kolpea Chavezen aurka, blokeo ekonomikoa, gerra informatiboa, matxinada biolentoak 2014an eta 2017an.

Zuleima Vergel venezuelarra Corriente Revolucionaria Bolívar y Zamora (CRBZ) mugimenduko militantea eta nazioarteko harremanen arduraduna da. CRBZ Venezuelako mugimendu herritar iraultzaileen artean sustraituenetakoa da. Chavez hiltzean oposizioak estrategia aldatu zuela dio: “Maduroren lehen garaipenetik aurrera hauteskunderi eta emaitzei zi-



legitasunik ez aitortzean oinarritzen da”.

Egunotako estatu kolpe saiakeraren genesisia 2017 urte hasieran kokatzen dute hainbatek, Errepublika Dominikar-aren: oposizioaren eta gobernuaren arteko negoziatio mahaia hautsita geratu zen, eta oposizioaren gehiengoak hauteskondeen bidea baztertu zuen hortik aurrera. “Adostutakoa sinatzera zihoazela, AEBek oposizioari deitu zioten, sinatu ez zezan. Akordioetako bat Madurok hauteskunde presidentzialak deitzea zen”, dio Arrutik. Hauteskundeak aurreratu ziren halere, eta Madurok irabazi egin zituen 2018ko maiatzean, bozen %67,8arekin.

Zuleima Vergelek hiru plano nagusi nabarmendu ditu erasoan: “Gerra ekonomikoa sakontzea; Gobernu diplomatikoki isolatzea; eta barne mailan haustura instituzionalak bilatzea, bereziki indar armatuetan”.

Gerra ekonomikoa aspalditik dator. Blokeoa, isunak, zigorrak. Mikel Moreno Calzada bilbotarra Pakito Arriaran Fundazioko kidea da eta elkartasun internazionalista lantzen dute. Zazpi urte daramatza Caracasen bizitzen eta chavismoaren mugimendu herritarrekin harreman estua du. Gerra ekonomikoak elikagaiak edo sendagaiak bezalako oinarrizko behar materialei erasaten die. “Estrategia horren helburua, azken batean, herritarren hautua aldaraztea da. Jendeak esatea: ‘Ni chavista naiz, baina medikamentuak heldu ahal izateko oposizioak agindu behar badu, agindu dezala’”. Urtarrilaren 23an Guaido presidente autoizendatu zenetik, jauzi kualitatiboa eman dute kolpistek eta haien aldekoek. Britainia Handiak blokeatu ditu Venezuelak han gordeta dituen 1,2 milioi dolar. AEBetako gobernuak Venezuelako estatuko petrolio enpresak bere lurraldean dituen funtsak izoztu ditu: 7.000 milioi dolar. Neurri horrek hurren-

go urtean beste 11.000 milioi dolarreko galera ekarriko lioke. Ondorioak ez dira nolanhikoak.

Barne zatiketaren helburuan hankamotz dabilta kolpistak momentuz. Gora begira politikari, epaile zein militarrei chavismoa abandonatzeko luzatzen zaizkien deiak etengabeak dira –mehatxuak ahaztu gabe-. Baina apenas lortu dute ezer. Ahalegin handienak armada presionatzera edo erostera zuzendu dituzte, sektore estrategikoa baita. Orain arte ahobatekoa izan da Indar Armatu Bolibarianoen posizioa Maduroren eta, batez ere, legalitatearen alde. Arrutik, Vergelek zein Morenok, hirurek uste dute horretan mantenduko direla –egoera orokorra ezin dela aurrikusi argi badiote ere-.

Behera begira, nekeak neke eta auto-kritikak autokritika chavismoak gehiengo soziala izaten jarraitzen du. Erasoak mobilizazioa eta batasuna hauspotu dituzte gainera, solaskideen hitzetan. “Antolakunde sozialen eta oinarri chavisten batasuna indartu du”, dio Vergelek. “Azken urteotan egoera sozial eta ekonomikoa gaiztotu egin da, arrazoi ugariengatik: petrolioaren prezioaren beherakadak asko baldintzatzen du Venezuelako ekonomia, blokeo ekonomikoak eta isunek eragina dute, ustelkeria arazoa da, eraginkortasun eza ere bai... Egia da chavismoak babes pixka bat galdu duela kalean. Baina oraingoaren moduko erasoek, 2014an *guarinba* deituriko istiluekin gertatu bezala, chavismoa batzen dute”, uste du Moreno bilbotarrak.

Oposizioak, bere aldetik, kamustua du aspaldiko kale-giharra. Urtarrilaren 30eko asteazkenerako Guaidok deitutako mobilizazioak otsailaren 2ko larunbateko mobilizazio erraldoiaren aurrekaria izatea nahi zuen oposizioak. Morenok dio Caracasen 2.000 eta 3.000 pertsona inguru atara zirela kalera, espero zenetik oso behera. Asteburuan “jende asko bai bildu da,

baina horrelako mobilizazio masiboetan batu ohi izan dutena gutxiago nabarmen”. Gobernuak ere deitu zuen manifestazioa egun berdinerako, kopuruak behera egin zuen honetan ere Morenoren arabera. Kolpistek otsailaren hamabirako deitu dute hurrengo mobilizazio egun masiboa.

Bitartean, barne mailan arrisku handiena ekintza biolento edota armatuetan ikusten du Vergelek. Oposizioko kideek zonalde aberatsetan egindakoak, zein auzo pobreetan diru bidez sustatuta-koak: “Auzo chavista batean foku biolento bat pizteagatik 20 eta 30 dolar artean ordaintzen da”.

## OPOSIZIOAREN GIDARITZA ETA INDARGUNEA, VENEZUELATIK KANPO

Hasieratik ikusi zen kolpe saiakeraren zutabe garrantzitsuenetakoa atzerria dela: AEBetako gobernuak minutu gutxira onartu zuen Guaidóren autoizendapena; Latinoamerikako gobernu kontserbadoreak batzen dituen Limako Taldeak berdin egin zuen jarraian; Europar Batasunak 8 eguneko epemuga ezarri zion Venezuelari “hauteskunde libreak” deitu zitzaizkion, nahiz eta Europako Legebiltzarrak epe hori amaitu aurretik onartu duen Guaidó presidente zilegi bezala.

Barne mailako haustura eta konfrontazio saiakerek beren helburuak betetzeko zailtasunen aurrean, kanpo alda- gaiak pisua irabazten ari dira estrategia orokorrean, eta AEBen gidaritzaren egunez egun agerikoagoa da. Barnean ezin eta atzerriaren zati batean soilik irudikatu ahal izan du Guaidó bere ustezko presidentetza: aitortu duten herrialdeetarako enbaxadore paraleloak edo estatuaren nazioarteko enpresetako zuzendari berriak izendatu ditu. Publikatu denez, urtarrilaren 30ean telefonoz jardun zuen Trump presidentearekin. Nazioarteko



## Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA  
Martin Ugalde K.P. / 20140 - ANDOAIN  
kluster@soziolinguistika.eus  
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus  
<http://www.soziolinguistika.eus/bat>

### BAT 109 > XI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

<p><b>LEHEN SARIA:</b> Izaskun Kuartango Atxa &gt; Bezero misterioitsuaren teknika herri-administrazioetako zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioan.</p> <p><b>BIGARREN SARIA:</b> Miren Artetxe Sarasola &gt; Hiztun berriak eta bertso-mundua.</p>	<p><b>HIRUGARREN SARIA:</b> Irati Lizeaga Elizalde &gt; Lintzirin: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan oinarritutako Euskara Sustapen Ekintza Plana (ESEP).</p> <p><b>Onintza Legorburu Larrea &gt; Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina:</b></p>	<p>Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak.</p> <p><b>Zigor Etxebarria Urbizu &gt; EAeko Administrazioa euskalduntzeko sistema. Balantze bat eta aurrera begirako proposamen batzuk.</b></p>	<p><b>GUREAN ATALA</b></p> <p><b>Paula Elosua, Antton Peñaalba &gt; Komunikazio-kompetentziaren ebaluazioa eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko lurraldeetan. EGAREN proba idetzia.</b></p>
--	---	---	---

komunikabide indartsuenak ere kolpistekin daude. Guaido presidente bezala onartzeaz eta bere inguruko babesak puzteaz gain, Venezuelaren argazki gatazkatsu, ezegonkorra, bizi ezina ari dira hedatzen. Esku-hartzearen zilegitasuna indartu nahi da horrekin. Moreno eta Vergel Caracasetik, eta Arruti Chichiriviche herritik, ordea, bat datoz 23az gozotik kalean normaltasuna izan dela nagusi esatean.

### HERRIALDE LAGUNAK

Etsai asko eta indartsuak ditu parez pare Venezuelak atzerrian. Baina aldekoak ez dira ez gutxi, ez makalak. Errusia eta Txina azpimarratzea ekidinezina da, mundu mailako potentzia ekonomiko eta militarrik biak ala biak. Politikoki herrialde lagunak izateaz gain, lotura ekonomiko zuzenak dituzte Venezuelarekin, milaka milioi euroko inbertsioak tartean. Eremita militarrean ere akordioak sinatu dituzte. AEBen esku-hartzeen aurrean, euren interesak defendatuko dituztela adierazi dute biek. “Venezuela bere aliantzak berregituratzen joan da, mundu multipolarraren klabea. Errusia eta Txina adi daude”, dio Vergelek. Besteak beste horrelako agertokiaren aurrean bizkarrak zainduago izateko estutu ditu potentzia handiekiko loturak Venezuelak. Ez dira berme erabatekoak, geopolitikaren bidezidorrak lanbrotsoak eta korapilatsua direla gogorarazten du Morenok. Venezuelaren herrialdeaz gaidiko interes asko dago jokoan, Latinoamerika zein mundu mailakoak: eragin gune politikoak, aliantza geostrategikoak, lehengai eta mineral preziatuak eta beste. Politikoki, “Venezuela erortzen bada automatikoki Latinoamerika eta Karibe osoa berri ere AEBen atzeko patio bihurtuko



NICOLAS MADUROK ADIERAZI DU EUOPAR BATASUNAREN ULTIMATUMA AEB-EN PLANEN PARTE DELA.

lirateke”, Arrutiren ustez. Mundu osoko ezkerrentzat litzateke atzera pauso ikaragarria, Vergelen esanetan.

### AURRERA BEGIRA: AGERTOKI GUZTIAK ZABALIK

Europar Batasunak hauteskundeak deitzeko jarririko epe muga amaituko da, Lima taldeak bilera ospatua izango du otsailaren lauan, zazpirako deitu dute nazioartea Mexikok eta Uruguai negoziatzaioa bultzatzeko. Hau irakurtzen denerako beraz, egungo korapiloetako zenbait askatuak egongo dira, hipotesietako batzuk baztertuak eta beste batzuk indartuak.

Aukerak enfrontamendu AEBen esku-hartze militar irekitik adostasun motaren bat erdiesteraino doaz, eta bi mutur horien artean alternatibak haizak dira. Uneotan, ematen du kolpistek laguntza humanitarioaren izenean ere saiatuko direla gobernua botatzen. Guaidok larunbateko manifestazioko mintzaldian jakinarazi zuen hiru “korri-

dore humanitario” zabalduko dituela nazioarteko laguntzarekin: zehaztu gabeko Karibeko irla batetik, eta Kolonia eta Brasileko mugetatik –Guaido presidentetzat onartu duten eskuin muturreko gobernuak dituzten bi herrialde-. AEBek egun bat geroago jakinarazi zuten Guaidoren “gobnuaren” eskaerari erantzunez “laguntza” bidaliko dutela.

Etorriko dena aurreikustea ezinezkoa da: ezegonkortasunagatik; jokoan dauden faktore, indar zein interes ugari eta gurutzatuengatik; Morenok eta Vergelek azpimarratzen duten bezala, “la impredecibilidad” Venezuelaren bereizgarria baita.

Arrutik ez du zalantzarik, okerrera helduta ere chavismoak borroka egingo du: “Gogorra egingo zaie Venezuela hartzea, bai barne indarregatik bai nazioartean ditugun lagunengatik. Ez dute batere erraza izango, *carajo!*”. Vergel irmo mintzo da: “Jendarte zibila ere ari gara lurraldea defendatzeko prestatzen. Ez ditugu gure lorpenak entregatuko”. ●

**blogetan!**  
BLOG IZARREN BILA

**Eman izena!**  
Lehiaketan parte hartzeko  
epea **otsailaren 24a**  
arte egongo da zabalik

#### SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra  
200 euroko diru txekoa  
ARGIA kolaboratzeko aukera

**azkue**  
FUNDATZA

**KATEGORIAK** Kultura / Gizartea / Zientzia / Aisia / Politika / Teknologia

**blogetan.eus**

DYLAN INGLIS

# “Euskara ikasita, atzerritar euskaldunok leku berezia daukagu euskal gizartearen”



Dylan Denny-Stearn Inglis, Ingalaterrako Devon probintzian jaioa, 1998ko abuztuaren 1ean. Duela bi urte, Durham unibertsitatean giza zientziak ikasten ari zela, urte sabatikoa hartu zuen Euskal Herrira etorrita euskara ikasteko. Iazko abenduan EGA titulua erdietsi zuen. Bost mintzaira daki: ingelesa, mandarineria, gaztelania, frantsesa eta euskara. Zubereraz mintzo da, baita bizkaieraz ere. Urtarrilean itzuli zen Ingalaterrara. Durham hiritik erantzun digu, idatziz. Xarmanki mintzatu ez ezik ederto idazten du.

MIKEL ASURMENDI @masurmendi

**Alimaleko harrabotsa sorrarazi duzu euskaldunon artean. Euskal hedabideetan euskaraz hitz egin duzu zuzen eta artez. Noiztik ezagutzen duzu Euskal Herria?**

2016an ama, aita, anaia eta laurok Euskal Herrira joan ginen oporretan, lehen aldikoz. Orduan buru-belarri niharduen frantsesa ikasten, nire zaletasunik handiena zen. Iritsi aurretik euskararen berri izan nuen. Heleta herrira autoz iristean, euskal esaldi xume batzuk behatu nituen interneten. Plazako taberna batean sartu ginen: gure prakamotz nabarrek eta larruazal xuri-xuriak gure britainiartasuna erabat salatu zuten. Halere, determinazio osoz, ostatuko kuadrillara hurreratu nintzen, eta, ahoskera frantses batez, arestian irakurritako “arratsalde on” bota nien. Nire harridurarako, haiek “arratsalde on” erantzun zidaten. Oraino ere, sentsazio alimale hartaz oroitzen naiz. Gurasoei esan nien momentu horretan pasatakoa inoiz gertatu zaidan gauzarik hoberena dela.

**Urte eta erdian ikasi duzu euskara, baita zuberera eta bizkaiera ere.**

Hizkuntzak gero eta sakontasun handiagoz ikasteko nahiak motibatzen nau. Gehien batua ikasi badut ere, hasieratik euskalkiaren garrantziaz jakin nuen. Barnetegira joan aurretik, Radio Kulturak

2000n igorritako “herritartzen” ikastaroari lotu nintzaion, Iparraldeko erdaldunei zuzenduta. Maiz errepikatzen dituzte ele zenbait, esanahi bera dutenak, baita hitzen eskualdea zein den adierazi ere. Zuberera usu aipatzen zuten: “jin” eta “etorri” hitzak egun berean ikasi nituen. Iparraldeko barnetegira joan nintzeneko, iparraldetarra bihurtua nintzen!

“

**Euskara oso-oso loturik da bere lurrarekin, eta Euskal Herriaren lekuen berezko ezaugarriak kontuan hartuz ikasi dut**

Bestetik, alta, nire aurreneko solaski-dea Iñaki Zubiri izan zen, baztandarra. Internetez mintzatu ginen. Berak nabarmendu zidan nik erabilitako hitz batzuk, “erran”, konparazione, Hegoaldeko beste leku batzuetan ez zirela esaten. Berak

nafarra izanik, hizkera berezia zuen; “faborez” ikasi nuen *please*-aren itzulpen gisa. *More or less* “guti goiti-beheiti” zen, eta bere ahotan *basque* ez zela euskara, *eskuara* baizik! Baztanera ere oso maite dut, eta aski ongi ezagutzen dut.

**Eta bizkaiera...**

Bizkaiera ere ikasi dut. Barnetegiko irakasle bati sarritan idazten diot, bera sano bizkaitar harroa da. Aldian-aldean bizkaiera ikas nezakeela aipatu zidan. Bestalde, iazko Eguberrietan euskarazko *Harry Potter* irakurtzeari ekin nion, eta ezetz asmatu zein berbeta ipini zioten Hagrid basozainari? Zer eta bizkaiera, bizkaiera batua! Barregura handia eman zidan. Ingelesez *westcountry* (nire probintziako) azentua zeukan eta. Hagrid euskaldunaren esanak ozta-ozta ulertu nituen, eta ezin nuen ulertu barik jarraitu, beraz, ikasteari ekin nion!

**Zergatik euskalkiak ikasi?**

Euskalkiak ikasteko zio nagusietakoa nire batuaren aberastasuna orraztea da. Iraitlean Bilbo Zaharra euskaltegian EGArako prestatzen ari nintzela egin nuen idazlan bakoitzean euskalki baten hiztegia eta gramatika (batura moldaturik) erabiltzen ahalegindu nintzen. Bizkaiera, lapurtera, baztanera eta zuberera aditzak eta Baztango lagunaren hitanoa erabili nituen

gutun informal batean. Irakasleak erran zidan inork ez zuela hitanoz idatzi idazlan batean! Lengoia orok bitxikeria anitz baditu. Adibidez, frantsesa eta gaztelania erregistro ugarikoak dira, eta literatura arlo oparo bana dute. Txineraren (mandarinera) karaktere tradizionalak ere liluratu naute, munduko hizkuntza esker ga horiek zer bait “mentsa” edo “zoro” dute, euskarak duena, nonbait.

### Zer aurkitu duzu euskarari, beste hizkuntzetan aurkitu ez duzuna?

Adierazkortasun handi-handiko egiturak. Beharbada aski *freaky* iduri luke, baina horiek oso berezko ditu euskarak. Hita noa ikaragarria da, bakarria munduan, antza. Solaskidearekiko hurbiltasun sendoa eraikitzen du.

### Euskara da gehien liluratu zaituen hizkuntza. Zergatik?

Nik dakizkidan mintzaira guztiak arras maite ditut. Baina, batez ere, euskara maitatzeko arrazoiak askotarikoak dira; orain dela oso guti artio arrotza izan zen mintzaira denbora labur samarrean oso etxeko bihurtu zait. Bertzalde, euskara oso-oso loturik da bere lurraldearekin, eta Euskal Herriaren lekuen berezko ezaugarriak kontuan hartuz ikasi dut: Baztanen, Arratian, Bilbon, Mutrikun, Atharratzen, ikasgelan eta irakasleen gelan: tokian tokiko berbeten edertasunak harrapatu nau, beste ezerk ez bezala. Orobat, “euskaldun” kontzeptua biziki gustatzen zait. Nire irakasleak euskaldun izateaz berba egin zuen egunaz gogoratzen naiz, konturarazi ninduen hizkuntza honek ez duela beste hizkuntza handi goen araupean jokatzeko; hots, behin ikasita, atzeritar euskaldunok leku berezia daukagu euskal gizartean. Eraikitako lotura ez da hizkuntza hutsa, euskal kulturak milaka urtez hizkuntzarekin izan duen harreman estu-estuaren ondorioztat jotzen dut.

### Euskara ikastea zaila dela diote zenbaitek.

Zer erran nahi dute baina, “zaila” erraten dutelarik? “Zailtasun” kontu horrek arras izorratzen nau, gero eta gehiago. Ez dakit zenbat pertsonak erran izan didaten gaztelania edo frantsesa ikastea errazagoa dela euskara baino. Euskara eta mandarinera ikastea nekeza dela erran dit jende andanak, adin guztietakoek. Gaztelania eta frantsesa erraza dela dioten artean, zenbat dira hizkuntza horietako batean mintzatzeko gai? Inor gutxi. Euskara

eta mandarineraren zailtasunaz mintzo direnetarik zenbatak solastatzen dute euskaraz edo mandarineraz? Aurreko taldekideek beste! Distantzia handia da “erraz”-etik “zail”-era, eta jendeak “erraz” erraten duelarik “ikasgarria” esanahikoztat hartzen dut eta “zail”, ordea, “esku-raezin”-tzat. Baina ez da hala! Frantsesa eta gaztelania hain errazak izango balira, hizkuntzarekiko interes apurra erakusten dugun lagun guztiok hitzun osoak izango ginatke!



## Aitak eta amak beti galdetzen didate zertan nabilen, ea euskararen zein alderdi ari naizen arakatzeko, biak oso ‘belarriprest’ dira

### Zer esango zenieke euskara ikasi nahi dutenei?

Klasean egonez gero, zaila dela ikastea. Euskara kanpoan ere praktikatu behar da. Eraginkorragoa ez ezik, zatirik atsegina ere bada, nonbait. Bestalde, niri ikasteko balio izan zaizkidan kontu bi: idazki bat (liburu orri, artikulua, karte-la...) irakurtzen dudari guztietan, ulertzen ez ditudan hitz, esaera, perpaus eta egitura guztiak azpimarratzen ditut eta hor nonbait apuntatzen ditut. Gero buruz ikasten ditut. Adibidez, barnetegian, eguneko klaseetan egindako irakurmetan nik erabiliko ez nituen gauza asko apuntatzen nituen, eta gero, klasetik irtenda, hitz horiek mugikorreko *Anki* aplikazioan sartzen nituen, eta astirik izanez gero berrikusten nituen. Horrek hiztegi handia eman zidan. Hiztegi barik ezinezkoa da ondo berba egitea edo idaztea, baita idazlan franko egin barik ere. Hiztegia eta gramatika neure kabuz ikasiz, askoz gehiago aurreratu dut. Osterantzean, egin tarrea euskarari zure bizitzan. Batik bat, irakur itzazu gustuko dituzun gauzak, baina euskaraz! Nik dakidala, erdaraz den ia guztia euskaraz ere eskuragarria da. Euskaraz plazererako irakurtzea lortzea urrats handitzat jotzen dut.

### Zer duzu esateko, zubererari buruz?

Zubererak oso galdua dirudi euskara batuan, eta hein handi batean entelegatzen dut, probintzia ttipi-ttipia baita: Ondarroak Zuberoak bezainbeste euskaldun ditu. Zuberoak bitxikeria paketa baditu. Azentua, adibidez. Ez dator frantsesetik, zenbaitek hala pentsatzen badute ere; biarnes mintzairan du bere eratorpena. Hizkuntzaren erritmoa ere ikaragarria da, oso berezia gainontzeko euskalkien aldean, eta besteena bezain ederra. Hiztegia ere bai, alimaleko hitzak dituzte. Biarnesetik hartu ditu ele anitz, adibidez, *ments* (falta) eta *sordeis* (okerrago).

### Euskara ikertzen ari zara. Zer zehazki?

Durhamen izango den *Hizkuntzak eta gizarteak* konferentzian txostena aurkeztuko dut. Nire proiekturako egitasmoa hau da: *Zuberoa eta Bizkaiko Arratia bailararen egungo dinamika linguistikoa*. Zuberoa eta Arratia Euskal Herriko muturretan daude, eta jatorrizko hizkera biziki interesgarriak dituzte. Euskara batutik oso urrun daude, eta horren ondorioz, batua beste “komunikatzeko aldaera” baltiz bezala sailkatu dut, hango gizarteetan euskalkiak eta batuak leku desberdinak dauzkate eta. Erdararen pisua ere aztertu dut, eta oro har egoera linguistikoa nola eta zergatik aldatu den eta nola aldatuko den etorkizunean.

### Arratiera ikertu duzu bereziki. Zein da berezitasuna?

Aditza itzela da! “Dostasu”, “dosku” eta “eustan” berbek liluratu naute. Berzko berbategi ugari ditu mendebaleko euskarak. Hori ez eze, asko aldatzen da leku batetik bestera. Aurreko batean afaria neukan igorretzar, ondarrutar eta mungiar lagunekin, guztiak bizkaierazko berbak zerabiltzaten, baina hainbat bider bakoitzaren hizkeraren berezitasunez jabetu nintzen. Igorretzarrak “geitu” zioen, “deitu” esateko; ondarrutarrak eta mungiarak “belu”... Tira, bizkaieraz berbaz nabilenean, aukeratu behar dut “gaur” edo “geur” esan, “afari” edo “afarixe”, aurrean dagoena zein den arabera.

### Ingalaterrara itzuli zara, nola atxikitzen duzu euskara?

Iñaki nire lehen lagun euskaldunari esker! Edinburgoko bere etxean bi bider egon naiz jada. Halaber, adiskide batzuekin ari naiz harremanetan. Euskarari eustekotan, online bidezko hizketaldiak premiazkoak dira, Durhamen ez baitago norekin



DYLAN INGLIS-EK UTZIA

hitz egin. Beharrik, udan Mintzanet-ekin harremanetan jarri nintzen, eta orduz gezotzik astero Ainara koordinatzailearekin solasean aritzen naiz. Ainarak eta biok hitanoz hitz egiten diogu elkarri, batuaz, eta hori erronka latza da! Beste aukerak eman izan dizkirate, eta berriki hasi naiz Buzturialdeko adinekoen egoitzako egoiliar batzueguz berbetan, hori astero ere bai. Txinan bidaiatzen ari nintzela, nire eguneroko gogoetak eta bizipenak euskaraz idatzi nituen. Hori ederto baten zetorkidan euskarari balio konkretu bat emateko. Neure buruari euskaraz hitz egiten diot, eta gurasoen etxean nagoela nire katuari ere bai (hikaz, doike!). Euskaltzaindiak eginiko herri hizkeraren atlasa ere irakurtzen dut. Baina, kasu, hor bada “adikzio” gisako bat. Behin irakurtzen hasita, ezin dut neure burutik kendu. Euskara eta mapak bildurik... Gozamen hutsa!

### **Beraz, internet ezinbesteko lanabesa da euskarak bizirik iraun dezan.**

Nire iduriko hil ala biziko eremua da. Zorionez, euskal edukia oso eskuragarria da. EiTb, irrati-kate makina bat, *Berria*, *Argia*, tokian tokiko aldizkariak, Wikipedia, Facebook, Google. Dena euskaraz. Twitter ez dut anitz ibiltzen, baina ematen du hor ari den euskal komunitatea bizi-bizirik dagoela. Arrenkura da sakelakoek euskarazko bertsiorik ez izatea. Mandarinera, frantsesa, gaztelania, ingelesa, guztiak daude aukeran. Zergatik ez euskara?

### **Euskal Herriko zure esperientziak zer diote lagunak eta etxekoek?**

Aitak eta amak beti galdetzen didate zertan nabilen, euskararen zein alderdi ari naizen arakutzen. Biak oso “belarriprest” dira. Lagunak bekaitzez daude! Euskal Herria Ingalaterratik hain urrun ez egon

arren, euskal kultura erabat ezezaguna zaie eta eskurazina da haientzat. Alabaina, galderak egiten dizkirate eta interesgarria iruditzen zaie. Abenduan, futbol taldearen parranda antolatu batean jokalariorol bana eman zitzaigun, eta lagunek niri *Olentzero* ipini zidaten!

### **Hizkuntzaz beste, zer iritzi duzu euskaldunari buruz?**

Izugarri abegikorra dela. Euskaldunen jatorriak harrizten nau. Bertako herrietan pertsona zoragarriak baino ez ditut topatu, eta kanpoan, berri, Shanghaiko Euskal Etxeak laguntza zoragarria eman zidan bertaratu nintzenerako. Mutrikun nagoen guztietan barnetegian ezagututako lagun batekin ateratzen naiz pintxo-potera, eta orain bere kuadrilla osoa ezagutzen dut. Pentsatu gabe onartu naute, oso jatorrak dira. ●



KATALUNIAKO INDEPENDENTISMOAREN AURKAKO EPAIKETA

# IRREGULARTASUNAK

Ez dira auzipetuen abokatuak Kataluniako prozesu independentistaren aurkako prozesuan izandako irregulartasunak eta oinarritzko eskubideen urraketak salatzen dituzten bakarrak. Espainiako Estatuko zuzenbide-alarreko 120 unibertsitate-adituk ere salatu dituzte gertakariok manifestu baten bidez. “Matxinada eta sedizio-delituen banalizazioa” goiburukoa daraman testuan diotenez, ez zen egon fiskaltzak eta Auzitegi Gorenak deskribatutako tipo penaletan jasotako indarkeriarik, ez 2017ko irailaren 20ko gertakarietan ezta urriaren 1 eta 3koetan ere. Auziaren irregulartasunak ez dira gutxi.

TESTUA | **JESÚS RODRÍGUEZ** / LA DIRECTA  
ARGAZKIAK | **DANI CODINA** / LA DIRECTA



“Oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen urraketa, urriaren 1aren ondorengo erantzun penala eta Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua aplikazioa direla eta” izenburuko txostenean Rafael Ribó arartekoak dioenez, “Auzitegi Gorenak eta Auzitegi Nagusiak esku-mena beren esku hartu izana trikimailu prozesal nabarmena da eta gauza objektiboa da Kataluniako Auzitegi Nagusia auziaz ez arduratzea dela trikimailu horren xede bakarra. Zuzenbide-alarreko profesionalen manifestuaren ildo berean, honela jarraitzen du: “Fiskalak eta instrukzio-epaileek deskribatutako gertakariak argudio maltzurretan oinarritzen dira eta ez datoz bat benetan

gertatutakoarekin. Matxinada, sedizioa, terrorismoa, antolakunde kriminala eta tankerako delituak instruitzerakoan legezkotasun penalaren printzipioa urratzen denean zigor zentzagarriak ezartzea eta etorkizunera begira jarra politiko jakin batzuk burutik kentzea izaten da helburua”.

Joan Queralt Bartzelonako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko katedradunaren iritziz, “ikuspegi juridiko eta prozesal batetik, prozesu independentistaren aurkako prozesuan disfuntzio larriak gertatu dira eta disfuntzio horiek juridikoki baliogabe eta demokratikoki zeharo bidegabe bihurtzen dute prozesu osoa”. Bere haserrea agertzen du indarkeria egon zela entzuten duenean.

“Katalunian eta Espainian ederki asko dakigu matxinada bat zer den: Tejero teniente koronelarena izan zen azkena. Hura matxinada bat izan zen. Katalunian gertatu dena izan daiteke politikoki eztabaidagarria, gaitzesgarria edo txalagarria, bakoitzak bere ikuspegia dauka, baina ez da inolaz ere izan indarrean dagoen zigor-kodeko delitu bat”. Carme Herranz Col·lectiu Ronda taldeko abokatu iritzi berekoa da: “Auzitegi Gorenean laborategi juridiko bat egin dute, Frankenstein bat. Matxinadaren indarkeria espiritual da, ez fisikoa; laborategiko eraikuntza hutsa da”.

Jordi Cuixarten defentsa-taldeko kidea dugu Àlex Solà, Marina Roigekin eta Benet Salellasekin batera, eta haren esane-

# ARAU



tan “politikan esku hartzeko izan duten presaren ondorioz, alde batera utzi dituzte prozesu penaleko berme guztiak. Gorenaren beraren doktrinaren aurka eginez, Marchena epaileak berak behin eta berriro esan du ez dela oinarritzko eskubideez hitz egiteko unea. Kasu honetan dena da salbuespenezkoa. Kasu honetan etsaiaren zuzenbide prozesala ari dira aplikatzen”. Queralt katedradunak zera gehitu du: “pentsamendu ofizialetik aldentu diren buruzagi politiko baketsuen aurkako bidegabekeria luze eta larri baten atariko tristea baino ez da hau dena”.

Zenbait legelarik diotenez, berariazko estrategia bat dago irregulartasun eta urraketa guztion atzean. “Euroaginduekin beste inon baino argiago ikusi

***“Epaiketa politikoak agerian uzten ditu batetik, Estatuaren izaera, bestetik, indarrean dagoen ordena iraunaraztea dela zuzenbidearen eginkizuna”***

da Llarenak estrategia bat zeukala eta bere erabakien edukia egokituz joan dela gertatuko zitzaiola uste zuenaren arabera. Belgikak euroagindua ez onartzeko arriskua zegoela ikusi zuenean, erretiratu egin zuen. Epaile batek ezin du estrategiarik eduki. Euroagindua formulario bat da eta Carmen Lamela epaileak ustelkeria-delituari zegokion laukia markatu zuen. Amarru bat izan zen”, nabarmentzen du Herranz abokatuak. Kautelazko neurrien kasuan ere estrategia hori bera aplikatu dute Queralt irakaslearen ustez: “Neurrigabe erabili dute behin-behineko espetzealdia, hautetsiak inhabilitatzea baitzen haien xedea, eta legeak diotenaren kontra egin dute, nahiz eta Konstituzio Auzitegiak erabakiok be-

## BALDINTZAPEAN PRESO

**Jordi Cuixart**Omnium-eko  
presidentea  
**Lledoners****Jordi Sánchez**ANC-ko  
presidente ohia  
**Lledoners****Oriol Junqueras**Gobernuko  
lehendakariordea  
**Lledoners****Joaquim Forn**Barne  
kontseilaria  
**Lledoners****Carme Forcadell**Parlamentuko  
presidentea  
**Mas d'Enric****Dolores Bassa**Lan kontseilaria  
**Puig de  
les Basses****Jordi Turull**Presidentetza  
kontseilaria  
**Lledoners****Josep Rull**Lurralde  
kontseilaria  
**Lledoners****Raül Romeva**Atzerri  
kontseilaria  
**Lledoners****Meritxell Borràs**Gobernazio  
kontseilaria**Carles Mundó**Justizia  
kontseilaria

Gaur egun libre daude

rretsi bere epaien aurka eginez". Herran-  
zek adibide honekin azaltzen digu azken  
puntu hori: "Argudio dinamikoa erabili  
dute auzipetuak espetxean mantentze-  
ko. Aurrena esan zuten kargu publiko

***"Pentsamendu ofizialetik  
aldendu diren buruzagi  
politiko baketsuen  
aurkako bidegabekeria  
luze eta larri baten atariko  
tristea baino ez da hau  
dena" Joan queralt***

bat izanik delitua errepikatzeke arris-  
kua zegoela, baina Joaquim Fornek di-  
putatu-aktari uko egin zionean, horretaz  
ahaztu eta argudio hori bigarren mailan  
gelditu zen. Ihes egiteko arriskua bes-  
teek egin dutenaren arabera interpreta-  
tu dute, eta hori larria da, legea modu in-  
dibidualizatuan interpretatu behar baita  
beti, soilik auzipetuta dagoen pertsonari  
dagokionez".

Ikerketak baliogabetzeko eskatzeko  
ahozko ikustaldian salatuko duen irre-

gulartasunetako bat aipatu digu Solàk.  
"Instrukzioa delegazioz egin da. Pablo  
Llarena epaileak ez du ezer instruitu,  
13 zenbakiko instrukzio-epaitegiaren  
eta Guardia Zibilaren esku utzi du in-  
strukzioa. Horrenbestez, prozeduratik  
kanpo egin dira frogak, auzipetuek kon-  
tra egiteko edo esku hartzeko aukerarik  
gabe, eta horrek zigor-arloko printzipo  
guztiak urratzen ditu". Defentsaren  
estrategiari dagokionez, hauxe iragarri  
digu: "Ez dugu kontraeraso politikoko  
defentsa egingo soilik, bakar bat ere ez  
barkatzen saiatuko gara". Lehen neurri  
gisa, prozesu aurreko arazo bat aurkeztu  
dute Luxemburgeko Auzitegian, Europar  
Batasuneko herrialdeetako harmoniza-  
zio penala dela eta. Carles Puigdemon-  
ten aurkako euroagindua atzera bota  
zuen Schleswig-Holsteineko Auzitegi-  
ko epaiaren edukia aintzakotzat hartua  
izan dadila nahi dute eta espainiar auzi-  
tegien salaketa auzitan jarria izan dadila,  
horrela.

Benet Salellasek hauxe idatzi zuen  
Anna Gabrielen abokatuaren hitzau-  
rrea eta Jordi Cuixarten hitzatzea dara-  
matzan *Jo acuso. La defensa en judicis  
politics* [Salatzen dut. Defentsa epaitegi  
politikoetan] liburuaren ondorioetan:  
"Epaiketa politikoak agerian uzten ditu  
bai Estatuaren izaera bai indarrean da-  
goen ordena iraunaraztea dela zuzenbi-  
dearen eginkizuna". Eta, Cuixartekin bat  
etorritz, hausnarketa politiko hau mahai-  
gaineratzen du: "Antolamendu soziala  
eraldatzeko borrokatzeak arriskuak da-  
kartza beti eta onartu egin behar dira  
epaiketei duintasun osoz aurre eginez,  
Estatuaren aurkako borroka politikoan  
parte hartzen duena errudun delako  
kontzientzia politikotik. Erruduna, bai,  
baina ez akusazio-idazkian zehaztutako  
kargu eta delituengatik, bizi izanagatik  
eta zerbaiten alde egiteagatik baizik". ●





## DESERRIAN



**Carles Puigdemont**  
Gobernuko  
presidentea  
Belgika



**Toni Comin**  
Osasun  
kontseilaria  
Belgika



**Clara Ponsati**  
Hezkuntza  
kontseilaria  
Eskoziak



**Lluís Puig**  
Kultura  
kontseilaria  
Belgika



**Maritxell Serret**  
Nekazaritza  
kontseilaria  
Belgika



**Anna Gabriel**  
CUPeko  
diputatua  
Suitza



**Marta Rovira**  
ERCKo idazkari  
orokorra  
Suitza



**Adrià Carrasco**  
CDRetako  
kidea  
Belgika



**Tamara Carrasco**  
CDRetako  
kidea  
Viladecans

## KONFINATUA

IRREGULAR-  
TASUNEN ETA  
ESKUBIDE-  
URRAKETA  
DEKALOGOA**EPAILEA SUSMOPEAN**

Polemika banaketa-sistema dela eta. Erreferendumaren aurkako auzia Juan Antonio Ramírez Sunyer epaile kontserbadoreari esleitzeko metodoa ez dela argia izan salatu dute abokatutzako profesionalak.

**IKERTZAILE PARTZIALA**

Daniel Baenak, buruzagi independentisten aurkako txostenak egiteko ardura izan duen Guardia Zibileko teniente koronelak, Twitterreko profil anonimo bat zeukan auzipe-tuetako batzuk, alderdi politikoak eta antolakundeak iraintzeko.

**PARLAMENTARIEN UKIEZINTASUNA**

Kataluniako Estatutuko 57. artikulua dio "Parlamentuko kideak ukiezinak direla beren ardura gauzatzen duten bitartean emandako botoei eta adierazitako iritziei dagokienez". Hala eta guztiz ere, espetxe- eta inhabilitazio-zigorrek eskatu dituzte Carme Forcadell Kataluniako Parlamentuko presidentea ohiarentzat.

**ESKUMENEO AUZITEGIA**

Estatutuko 57.2 artikuluari jarraiki, Kataluniako Auzitegi Nagusiari dagokio Kataluniako Parlamentuko kideen aurkako auziak epaitzeko eskumena. Nolanahi ere, Auzitegi Gorenak beretzat hartu zuen eskumen hori, Parlamentuak Konstituzionalaren aginpideari "bizkarra eman" ziolakoan.

**OZTOPOAK ERREKURTZO-ESKUBIDEARI**

13 zenbakiko instrukzio-epaitegiak probidentzien bidez egin ditu zenbait jardun, haien edukia kontuan hartuta jardunok interlokuzio bidez egin behar bazituen ere. Erre-

kurtsuak aurkezteko aukera oztopatzen du horrela.

**DEFENTSA-ESKUBIDEAREN URRAKETA**

Espainiako Auzitegi Nazionalak deklaratzera deitu zituen Jordi Cuixart eta Jordi Sànchez, fiskaltzaren salaketaren berri izan gabe. Gobernuko kideak 48 orduko aurrerape-naz deitu zituzten, defentsa prestatzeko gutxiegi.

**AUZIPETZEA EZ DA IRMOA**

Auzipetze-interlokuzioa ez da irmoa, Toni Comíni eta Meritxell Serreti sumarioa amaitzeko interlokuzioa ez ziela jakinarazi onartu baitzuen Pablo Llarena. Horregatik onartu zuen erreforma-errekurtsua izapidetzea.

**MATXINADA INDARKERIARIK GABE**

Matxinada- eta sedizio-deliturik egoteko indarkeriaz lagundutako altxamendua egon behar da baina, bai Schleswig-Holsteineko auzitegi alemaniarrek bai Belgikako eta Eskoziako fiskalek frogatu dutenez, ez da halakorik gertatu.


**GEHIEGIZKO BEHIN-BEHINEKO ESPETXEALDIA**

Behin-behineko inhabilitazioaren bitartez hautetsiak aldi baterako kargugabetzeko helburuz, Pablo Llarena epaileak Konstituzio Auzitegiaren beraren jurisprudentziaren aurka egin zuen.

**ERREFERENDUMAK DESPENALIZATUTA**

Adostu gabeko erreferendumak deitzea despenalizatuta dago, 2/2015 Legeko azalpenaren eta zioen arabera. Izaera juridiko-penal nahikorik ez duenez, ez du delitu-izaerarik.

# 1939KO ERRETIRADA AZKENA OTE?



Duela 80 urte, 1939ko urtarrilaren 28an, frantziar agintariek Kataluniako Pirinioetako mugak irekitzea agindu zuten eta hurrengo egunetan milaka lagun igaro ziren frankistengandik ihesi. “Erretirada” deitu izan zaio migrazio erraldoi horri. Ez zen lehen erretirada izan ordea... eta azkena ote?

**JOSU CHUECA**

**E**rretirada edo “atzera egitea” ez zen mugimendu berria Espainia-ko Gerra Zibilean. 1936ko uztailearen 18an hainbat militarrek estatu kolpe eman eta gerra sorrarazi zutenenik, errepublikaren aldeko askok herria utzi behar izan zuten frankistak etengabe aurrera zetozelako. Euskal Herrian, Irun izan zen exodo eta huste masiboaren lehen katebegia. 1936ko irailaren hasieran, hiria hutsik geratu zen jende gehienak Hendaian barrena ihes egin zuelako, frankisten hatzaparretatik alde eginez.

Zenbait hilabete geroago Bizkaiaren aurkako erasoaldian, milaka haur salbatu ziren itsasoz, Britainia Handira edo Sobietar Batasunera bidaiatuz. Horixe izan zen gero milizianoek eta gudariek

egindako erbesteratzearen aurrekaria: “Ipar Frontea” bere osotasunean frankisten esku gelditzeaz zegoela egin genuen lehen “erretirada” euskaldunok.

## **FRANKISTAK KATALUNIAREN JABE**

Baina erbesteratzerik latzena gerra amaitzeaz zela gertatu zen, frankistak Kataluniaren jabe egin zirenean. Lleidatik Juan Yagüe eta Jose Solchaga jeneral frankistek Tarragona eraso ondoren, iparralderantz egin zuten, eta Bartzelona hartu ostean, Gironan barrena azken muga zanpatzeko asmotan zebiltzan. Erresistentzia handirik gabe, urtarrilaren 27rako Bartzelona hartu zuten frankistek; aurreko egunetan erbesteratzerik jendetsuenaren lekuko izan zen Konde-hiria. Gerra amaitu gabe

zegoen arren –Alacant, Valentzia eta Madril oraindik errepublikarren esku zeuden–, frankistak Bartzelonaren jabe egin zirenean Errepublikaren behin-betiko porrota zela antzeman zuten gehienek.

Hiriburu horretan zeuden Errepublikaren aldeko hiru gobernuak: Espainia-ko –Juan Negrín Espainiako Ministroen Kontseiluko buruak eta Manuel Azaña Bigarren Errepublikako presidentea ordezkatzen zutena–, Kataluniako Generalitatea eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza, Jose Antonio Agirrek une horietan Bartzelonan bertan gidatua. Horiek guztiek batera laga zuten Bartzelona eta muga alderantz egin zuten ihes, Figueresko (Katalunia) gotorlekura, Gorte errepublikarraren azken saio



MANUEL MOROS

1939KO OTSAILAREN 4A. Emakumeak eta euren haurrak Kataluniako Pirinioetako muga igarotzeko zain.

parlamentarioa egin ostean. Beraiekin, jendetzak segizio antzekoa egin zuen Ipar Kataluniara eta Frantziara pasatzeko. Oso ondo baitzekiten zein izango zen etsaiaren jokabidea sorlekuan geratzen zirenekin: nahiz eta jadanik jaun eta jabe izan, frankistek ez zioten sekula errepresio krudelenaren torloju estutzeari utzi.

Bartzelona hartu eta hamar egunetara indarrean jarri zuten, "Erantzukizun Politikoaren Legea", 1936az geroztik erabiltzen ari ziren politika zanpatzailak Espainiako lurralde guztietan eta bereziki Katalunian arautzeko asmoz. Gainera, nahiz eta erresistentzia handirik ez aurkitu, abiazio faxistak Bartzelona bonbardatzen jarraitu zuen, bai-

ta Figueres eta Puigcerdà ere, izua eta triskantza zabaltzeko helburuz. Milaka herritarrek jo zuten errepede eta trenbideetara, Gironatik Pirinioetako mugara iristeko asmoz. Aterpea hartu nahi zuten *Fraternité*. *Liberté* *Egalité* lelo gorena zuen herrialde lagun horretan, baina Frantziako Estatuak ez zuen Espainiako Estatuako errefuxiatuak nahi.

Édouar Daladierrek gidatzen zuen frantziar gobernuak kanpotarrekiko harreara politika erabat aldatu zuen 1938. urtetik aurrera. Albert Sarraut Barne ministroak bultzaturiko hainbat lege eta dekreturen bidez, *Indesirables* deituriko atal zehaztugabeen sartzen ziren kanpotarrak, errefuxiatuak, gorriak... jendilajea ziren Frantziako administra-

zioarentzat. Eta hara bertaratuz gero, kartzeletan edo atxikitze zentroetan sar zitezkeen kanporatuak izan arte. Beraz, 1936an eta 1937an ahalbidea izan zena -Frantziari ongi etorria izatea errefuxiatu lez-, ezinezkoa izan zen gerra amaitzear zegoenean. Egoera hartan, Espainiako Kanpoko Aferetako ministro Julio Álvarez del Vayok bere parekide frantziarra zen Georges Bonnetekin negoziatu zuen: 150.000 zibil, hots, adineko jendea, emakumeak eta haurrak Frantziari sartu ahal izatea eskatu zion. Baina frantziar agintariek ezetz esan zuten. Are gehiago, mugak itxi eta gogortu zituzten, baita mota guztietako jendar-me eta soldaduak bidali ere, pasabideak zaindu zituzten.

**ARGELÈS-SUR-MER.**

Hasierako kontzentrazio-esparruak hondartza hutsetan eraikiarazi zituzten frantziar agintariek 1939an, txarrantxa artean. Gerokoetan ere ez zuten askoz tratu hobea izan errefuxiatuek.

**URTARRILAREN 28A: EMAKUMEAK ETA HAURRAK LEHENENGO**

Baina milaka ziren egoera oso larrian zeuden pertsonak, eta mugaren bazterretan gertatzen ari zenak amore ematera derrigortu zituen agintari frantziarrak. Urtarrilaren 28an emakumeak eta haurrek muga igarotzea onartu zuten. Aste bete geroago, otsailaren 5ean, Espainiako agintari politikoei eta milizianoei ireki zizkieten ateak. Egun hartako goizeko lehen orduetan, Alt Empordáko La Vajol herritik harago dauden portuetatik barrena erbestera igaro ziren Negrín, Azaña, Lluís Companys Kataluniako Generalitateko presidentea eta Agirre lehendakaria bera. Hortik gertu, Le Perthusetik, Aresko lepotik eta Cerberetik milaka lagunek ere egin zuten ospa, orpoz orpo zituzten frankistei beldur.

Baina gizalegearen garaipena motza izan zen: alde batetik, Frantziako agintarien asmoa zelako errefuxiatu horiek lehenbailehen Espainiara itzularaztea; eta bestetik, prestatu zuten harrerak gutxi zuelako gizalegetik. Ekialdeko Pirinioetako prefetak, Raoul Dukowskyk, berehala eskatu zuen barruti horretatik kanporatuak izan zitezela. Perpinyàngo alkatea ere kexu zen errefuxiatuen uholdearekin: diputatu eskuindarrekin batera “gorriz

osaturiko jendaila” ahalik eta azkarren Espainiara bidaltzeko eskatzen hasi zen agerraldietan, komunikabideetan, baita Pariseko parlamentuan bertan ere.

Frantziako armada arduratu zen mugaz bestaldera igarotako jendetza antolatzeaz. Ahalik eta norbanako gehien Espainiara itzularazteko ahaleginak egin zituzten arren, emakume eta haurrei aukera eman zieten Frantzian barrena aterpeetan edo familien etxeetan gertatzeko. Baina gizonezkoek gerra jarduna ezarri zieten. Bi hilabete geroago Francisco Franco diktadoreak gerra amaitzeko erabili zituen hitzak praktikara eraman zituzten: milizianoak desarmatu eta gaitibu bilakatu zituzten.

**TXARRANTXAK ETA HONDARRA**

Muga zeharkatutakoan, jendarmek milizianoek armak kentzen zizkieten eta goitik behera erabat miatu. Ostean, kontzentrazio guneetara eramaten zituzten, Frantziako militarren zaintzapean. Lehenengo *Lotsazko Eremuak* sortu zituzten hondartzetan: Argelès-sur-Mer-en, Sain Cyprien-en... Pixka bat geroago, Le Barcarès-en, ia 200. 000 miliziano eta gudari hartzeko esparrua jaso zuten. Inongo babesik gabe zeuden leku horietan, hon-

darra gainean eta azpian, itsasoa alde batean eta txarrantxak bestean, ortzi-mugan frantziar soldaduak baizik ez zituzten ikusten 1939ko otsailaz geroztik erretiradetan joandakoek.

Halako baldintzetan, agintari frantziarrekin espero zuten azkar itzuliko zirela etorritako bidetik, baina usteak erdia ustel. Nahiz eta egoera latza izan, gehien-goak nahiago izan zuen hor segitu, Espainia frankistara bueltatu baino. Halabada, arazoa berehala sortu zen: Argelès, Saint Cyprien eta Le Barcarès-eko esparruak jendez gaindituta zeuden, eta agintari militarrek Fagalden eta Menarden beste esparru bana atontzeari ekin zioten. “Zelaien Frantzia” deitu izan dena jaiotzen.

Le Barcaresko ereduari helduz, inguruko departamentuetan zelai gehiago eraikitzen hasi ziren errefuxiatuak barneratzeko, epidemia bailitzan; horretarako militarren eremu zaharrak ere aprobetxatu zituzten. Nahiz eta Frantzian inongo deliturik ez egin, atxikitze erregimenean zeuden, Espainiara itzuli edo beste leku batera joan arte. Hasieran gainera, guneotan atxikita zituzten lagunek ezin zuten bertatik atera kanpoan lan egiteko; 1940tik aurrera eman zieten horretarako baimena.



## ERBESTERA BIDEAN.

1939ko urtarrilaren 28an ireki zuten muga, eta milioi erdi pertsonak igaro zutela uste da.



## ZELAI BAT EUSKAL HERRITIK LAU KILOMETRORA

Bram, Septfonds, Agda, Noé, Rieucros, Gurs, Rivesaltes... kontzentrazio-esparruak perretxikoen antzera sortu ziren denbora oso azkarrean, militarren ekimenez. Haietako bat, Gurs, Euskal Herritik oso gertu zegoen, Zuberoako Ospitalepeatik lau kilometro eskasera; hara eraman zuten euskaldunen gehiengo, 6.000 lagun inguru. Baina beste zelai batzuetan ere pilatu zuten euskaldun mordoa, Bramera esaterako 1.000 lagun baino gehiago eraman zituzten.

Nolanahi ere, Gurseko kontzentrazio esparrua da euskal errefuxiatuen historiarekin gehien lotu izan duguna. Haren atzean bat egin zuten, batetik Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuei laguntzeko abian jarritako politika esanguratsuak, eta bestetik zelaien sistema hobeto antolatu eta kudeatzeko militar frantziarren asmoak. Perpinyàn aldean, Telesforo Monzon Eusko Jaurlaritzako Gobernaio kontseilariak errefuxiatuen aldeko ekimena abiarazi zuen, Leonardo Salazar, Andres Irujo eta Ander Bereziartuak lagunduta; hala, Gursen sorrera jauzi garrantzitsua izan zen euskaldun gehienak elkartu eta hauei laguntza bermatzeko.

Errefuxiatuak Euskal Herrira bueltan elkartzea zen asmoa eta agintari frantziarrekin negoziazioak izan zituzten, zelai berriak sortuz gero haietako bat Ipar Euskal Herrian bertan koka zedin. Jakina denez, ezinezkoa izan zen, tokian tokiko politikari batzuen oposizio irmoa izan zuelako egitasmo hark. Horien artean nabarmendu zen Jean Ybarnegaray diputatu baxenafartarra, Francoren zale amorratua eta geroago Vichyko gobernuaren ministro izango zena. Baina zapuzketa ez zen soilik kopapenarekin etorri: Gursera itxaropenez eta gogoz joan zirenak, nahiz eta Argelèseko zelaian baina hobeto egon, laster konturatu ziren Frantziako agintarien hitzak eufemismoak besterik ez zirela, eta hura ez zela “harrera zelaia” edo “milizianoen zelaia”, kontzentrazio esparru krudela baizik. Bigarren Mundu Gerrak are gehiago okertu zuen halako esparruen desbideratze errepresiboa, “heriotza zelaien” katean lotu baitzituzten.

Hori guztia jakinik, nola liteke egungo European, orain dela 80 urteko “Erretiradan” migratzaileen eta errefuxiatuen aurka egin zen politika bertsu egitea? ●

## EKITALDIAK

1939ko “Erretiradaren” 80. urteurrena dela-eta antolatutako hainbat ekitaldi:

**ARRASATE.** Otsailaren 7an, *La Retirada*-ren nazioarteko egunean, *Etorkizuna alanbre hesi artean* erakusketa zabalduko eta *De la Retirada a la Reconquista* dokumentala emango dute Kulturaten.

**BORDELE.** Otsailaren 8an, *Sur les Travailleurs Forces Espagnols* erakusketa.

**LIMÒTGES.** Otsailaren 12an, *Dans les camps de la Retirada 1939-1949* liburua aurkeztuko dute.

**PAUE.** Apirilaren 1, 2 eta 3an Gurseko esparruari buruzko biltzarra Paueko Unibertsitateak antolatuta.

**OLOROE-DONAMARIA.** Apirilaren 5, 6 eta 7an jardunaldiak (Gursen ere bai) *Terres de Mémoire(s)* et de Luttés taldearen eskutik.

## ETXEZ ETXEKO LANGILEAK BORROKAN

# EHUNKA LANGILE KALERA ETA HEMEN EZ DA EZER GERTATZEN

Greban eta protestan dira etxez etxeko langileak. Sektore prekario eta feminizatuaren aje gehienak dituzte: lan fisiko gogorra ez da aintzat hartzen; erakundeei merkeago ateratzen zaie senideei prestazio ekonomikoak ematea edo emakume atzerritarrak sektorean aritzea; ez dute igandetako plusik. Eraikuntzako enpresak sartu dira sektorean, menpekotasuna duten pertsonak artatzea zer den ez dakiten azpikontratak.

TESTUA | MALEN ALDALUR AZPILLAGA @malenaldalur  
ARGAZKIA | LUIS JAUREGIALTZO / FOKU

**P**ili Larrañagak, Jone Fernándezek eta Ana Martínezek Donostiako Garbialdi enpresarentzat egiten dute lan. LAB sindikatuko kideak dira. Alicia Graña, berriz, Bizkaiko etxez etxeko zerbitzueta ari da eta CCOO sindikatuko arduraduna da. “Lanbide feminizatu da gurea, eta ondorioz, prekarioa ere bai”, dio Grañak. Bat datoz Larrañaga, Fernández eta Martínez. Azken hiruak iazko irailetik ari dira protestan beraien lan eskubideak hobetzeko asmoz.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua lehiaketara atera du Donostiako Udalak. Aurretik, hitzarmena adostu eta sinatu nahi zuten Garbialdi enpresarekin. Hainbat saiakeraren ondoren, eta enpresak inolako aurrerapausorik ez zuela ematen ikusita, greba mugagaberako deia egin zuten: “Sindikatuaren eskariak gehiegizkoak zirela esaten ziguten, baina ez zuten bestelako proposamenik egiten”. Azkenean, ez dute akordiorik lortu. Iker Beristain LABeko ordezkariak azaldu du lau enpresa aurkeztu direla lehiaketara eta badirudiela Aztertzen enpresak irabaziko duela: “Aztertzen enpresa egon zen Garbialdiren aurretik eta langileek diote horiekin harremana nabarmen hobe zela; txarrenetatik aukera onena

dela esan genezake”. Beraz, esperantzatsu daude lehiaketa Aztertzenek irabaziko balu, hitzarmen berri bat sinatzeko aukera egon daitekeelako.

Baina zeintzuk dira Donostiako etxez etxeko langileek hitzarmenean jasotzea nahiko lituzketen hobekuntzak? Esaterako, soldataren igoera: 1.500 eurotik behera irabazten dutenei 30 euro gehiago eta 1.500 eurotik gora irabazten dutenei 15 euro gehiago. Asteazkenean ari direnek astelehenean larunbatera egiten dute lan, bada lan astea astelehenean ostiralera izatea nahi dute. Asteburuetako langileei ez diete gehiago ordaintzen igandeetan lan egiteagatik.

Zerbitzu arteko desplazamendua ordaintzea eskatzen dute. Honela azaldu du Beristainek: “Zuk egunean ordubeteko zazpi zerbitzu badituzu, zazpi ordu ordaintzen dizkizute, baina lanean agian bederatzita pasatzen dituzu”. Horregatik, langileak behartuta daude hamaika orduz libre egotera. Larrañagak kontatu du berak Donostiako Amara auzo inguruan egiten duela lan eta Amara, Loiola, Martutene eta Aieteko zati bat egin behar izaten dituela: “Autobusez batetik bestera joaten denbora asko behar izaten dut”. Martínez ere hala ibiltzen da Gros

auzoan punta batetik bestera. Bertan behera geratzen diren zerbitzuak ez dizkiete ordaintzen: “15:00etan etxe batera joan behar bazara, baina menpekotasuna duen pertsona ospitalean badago, hurrengo zerbitzura arte zain egon behar duzu eta denbora zati hori ez dute kontuan hartzen”. Egoera onartezina dela dio Beristainek: “Garbiketako lan hitzarmenean, esaterako, jasota geratzen da”.

Bizkaian egoera bestelakoa dela azaldu du Grañak: “Gipuzkoan ez bezala, guk lurralde-hitzarmena daukagu, eta ondorioz, baldintza hobeak dira”. Hala ere, ez daude kontentu: “Hobekuntza sozial ugari aldarrikatzen ditugu”. Sektorean lanean ari den %99 emakumezkoa dela dio eta uste du horrek “ezinbestean” darrakarela lanbidearen “prekariatatea eta prestigiorik eza”. Donostiako etxez etxeko langileen kasuan ere antzera gertatzen da: 350 langile daude eta horietatik 15 dira gizonezkoak.

Ondoko adibidea jarri du Grañak: “Gure lana fisikoki oso gogorra da, pisu handia jaso behar izaten dugu, baina horregatik ez daukagu inolako onurarik. Fisikoki gogorrak diren lan maskulino askotan, adibidez, lehenago jubilatzen dira”. Lanbide feminizatu izateak es-



**KALEAN BORROKAN.** AZKENALDIAN GERO ETA SEKTORE FEMINIZATU ETA PREKARIZATU GEHIAGO ARI DIRA PROTESTAN. ARGAZKIKOAK BIZKAIKO ETXEZ ETXEKO LANGILEAK DIRA, 2018KO OTSAILEAN BILBON.

fortzu hori guztia ikusezin bihurtzen duela uste du: “Jendea altxatu behar izaten dugu ohetik, garbitu eta mugitu, eta gehienetan geuk bakarrik, inolako laguntzarik gabe”.

### **PRESTAZIO EKONOMIKOA SENIDEA ETXEAN ZAINTEZKO?**

Erakundeen jarrera kritikatzeko ere beharrezkoa dela dio: “Azken urteetan gure enpresak 500 langile kanporatu ditu. Nola liteke? Menpekotasuna duten gero eta pertsona gehiago ditugu eta haiek zaintzeko gero eta langile gutxiago?”. Uste du erakunde publikoak –batzuetan udala eta besteetan aldundia– ardura gizartearengan uzten ari direla. “Etxez etxeko zerbitzuak eskaintzea baino merkeago ateratzen zaie familiei prestazio ekonomikoa ematea menpekotasun egoeran dagoen pertsonaren zaintzaz beraiek arduratu daitezten”. Gaineratu du, gehienetan, emaztea, ama, ahizpa, arreba edo alaba izaten direla: “Edo bestela, emakume atzerritarra kontratatuko dute oraindik eta baldintza okerragoetan lan egiteko”.

Hori zaintza arloan eta lanbide feminizatuetan baino ez dela gertatzen uste du Grañak: “Esate baterako, kale garbi-

tzaileak udalak kontratatzen ditu eta ez diete herritarrei diru prestazioa ematen beraiek arduratu daitezten euren kale zatia garbitzeaz, ezta?”. Bestalde, horrelako sektore batean 500 lanpostu galdu arren kalean ez dela nabaritzen salatu du: “Zer gertatzen da ontzirolekin? Hainbat langile kaleratzen dituzte eta jende guztia kalera ateratzen da”.

Donostiako etxez etxeko langileek ere uste dute erakundeek “arduratsua” jokatu beharko luketela. “Beraiek azpikontratatu dituzte etxez etxeko laguntzaz arduratuko diren enpresak, 10 milioi euro ematen dizkiete, eta ez daukate zeresanik beraien erabakietan?”.


### **PERTSONEKIN ALA ADREILUEKIN LANEAN?**

Etxez etxeko zerbitzuez arduratzen diren enpresa asko eraikuntzako enpresak direla gogorarazi dute Beristainek eta Grañak: “Nola liteke? Guk pertsonekin egiten dugu lan eta horiek uste dute adreiluekin gabiltzala”. Ildo berean hitz egin du Larrañagak ere: “Pertsonekin aritzen gara horrek dakarren zama guztiarekin, batzuentzat beraien bizitzetako pertsona garrantzitsuenak bihurtzen gara”.

Lana fabriketan ariko balira moduan antolatzen badiete ere, Fernándezek, Larrañagak eta Martínezek behin eta berriro errepikatu dute pertsonekin egiten dutela lan, eta gainera, beraien etxeetan: “Jendearen etxeetara sartzen gara, beraien bizitzetako ateak irekitzen dizkigute eta harremanak sortzen ditugu”, azaldu dute. Gaineratu dute teknikoak pasatzen diren arren, edo gizarte laguntzailearengana jo dezaketen arren, beraiek direla egunero mendekotasuna duten pertsonekin –eta horien familiekin– ordu luzez egoten direnak. “Batzuk zaharrak izaten dira, beste batzuk gazteak eta, kasu batzuetan, baita umeak ere” dio Fernándezek. Langileei asko eragiten diela nabarmendu du: “Inoiz gertatu izan zaigu pertsona bat zaintzen urteak igaro eta eskelaren bitartez jakitea bere heriotzaz”.

Makinekin lan egiten duten enpresen moduan funtzionatzeari utzi behar zaiola uste dute, eta argi dute erakundeak eta azpikontratatuak enpresak ezinbestean moldatu behar direla sektorearen beharrezanetara. Bitartean, sindikalgiatzatik borrokan jarraituko dute hitzarmen berriak sinatzeko asmoz, langileen eta erabiltzaileen mesedetan. ●

# DAHLIA ALA DALIA



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**DAHLIA MEXIKOKO GOI ORDOKIETAN  
EZAGUTU ZUTEN INBADITZAIL  
ESPAINOLEK. 1789AN IRITSI ZIREN  
LEHEN TUBERKULUAK EUROPARA.**

**D**aliaren urtea izendatu dute aurtengo hau, *Dahlia pinnata*. Ondo esanda Dahliaren urtea da. Euskarazko hiztegiek eta entziklopediek “dalia” esaten diote landare horri; nik uste dut “dahlia” esan beharko geniokeela.

Dahlia Mexikoko goi ordokietan ezagutu zuten inbaditzaile espainolek, urrutira gabe euskaldunen bat ere izango zen. Karlos III.a Espainiakoak inperioaren mendeko lurraldeetan harrapazka hartu eta eramaten jarraitzeko moduko lehengaiak zein izan zitezkeen ezagutzeko bidaldiak antolatu zituen. Beste landare eta animalia mordoaren artean, Espainia Berria deitu zuten gaurko Mexiko hartan, aztekek “*chichipatlí*”, “*acocotli*” eta “*coanenepilli*” esaten zioten dahlia ezagutu zuten. Bere lurpeko tuberkulua jateko barazki gisa lantzen zuten, patataren moduan, *Solanum tuberosum*. Europara ekarri eta gero ere barazki gisa sailkatua izan zen.

1789an iritsi ziren lehen tuberkuluak Europara, Madrilgo Lorategi Botanikora, eta hurrengo urtean loratu ziren. Bertako zuzendaria zen Antonio José Cavanilles abade valentziarrak ederki deskribatu zituen landareok, baita Dahlia izena jarri ere, Anders Dahl botanikari suediarren omenez. Anders

hura batez ere *Observationes botanica* argitaratu zuelako zen ezaguna. Abadea jarraitzailea zuen, eta berari eskaini zion genero osoa eta hiru espezie izendatu: *Dahlia pinnata*, *Dahlia coccinea* eta *Dahlia rosea*.

1802an Madrildik igorri zituzten lehen dahliak Parisera, han André Thouin botanikari ospetsuak Historia Naturalaren Museoan landatu zituen. 1805ean Alexandre Humboldt Mexikotik dahlia haziak igorri zizkion Berlinera Carl Ludvig Willdenow botanikariari. Aurrez izendatua eta sailkatua zen ez jakin, alemanak beste izen bat eman zion dahliari: *Georgina* izendatu zuen generoa Johann Gottlieb Georgi botanikari alemanaren ohorez. Gerora argitu zen auzia, eta, *Dahlia* zaharra goa izaki, hari eutsi zaio, eta *Georgina* baztertu. Oraindik Errusian, Ukrainan eta Mexikon bertan ere “georgina” esaten zaio.

Gure Anders Dahl, Carl von Linné zientzialari suediar ezagunaren ikasle izan zen. Linnék espezie guztiak (bizi direnak bezala, galdutakoak) izendatzeko izen zientifikoa edo bi hitzeko nomenklatura binomiala sortu zuen. Berak 1755ean esana da “*Nomina si nescis, perit et cognitio rerum*” hau da: gauzen izena ez badakizu, beraietaz dakizuna ere desagertzen da. ●

# Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

**HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!**





TIERRAPAPELTIJERA

# ALDAKETARAKO NEKAZARITZA



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**A**rabako mendebaldean, Salcedo herrian kokatutako proiektu agroekologikoa da Tierrapapeltijera. 2009an abiatu zuten egitasmoa Ramon Roa eta Monica Garciak, eta dua gutxi hirugarren kide bat batu zaie proiektura. Barazkigintza ekologikoa dihardute bereziki, nahiz lekale, gari eta zerealak ere ekoizten dituzten. Roak azaldu duenez, jendartearen eraldaketa bultzatu nahi duen egitasmoa ere bada beraiena: “Gizartea nola antolatua dagoen ez dugu maite, eta hori aldatzeko bidean gabiltza, gure aukeren arabera eragiten”.

## BIZI PROIEKTU JASANGARRIA

Kideen arteko eta naturarekiko errespetuan lan egitea da Tierrapapeltijera egitasmoko oinarria. Lanbide bat baino, bizi proiektu oso bezala ulertzen dute beraiek martxan jarri dutena. “Neka-

zaritza bizitzaren oinarrian dagoelako erabaki genuen honetan jardutea. Valentziako barazki ekoizle ekologiko batekin aritu nintzen lanean hona etorri baino lehen, eta eredu hori ekartzea izan da asmoa”, azaldu du Roak. Valentziatik Arabara bueltatzerakoan gurasoen lur zati bat lantzen hasi ziren lehenik, eta hasieran etxerako ekoizti bazuten ere, segituan hasi ziren barazkiak saltzen.

Lehen urteetan 15 saski inguru egiten zituzten, baina egun jada Gasteiz aldeko eta Miranda de Ebroko 60 familia ingururi ematen diete jaten. “Garaiko barazkiak eskaintzen ditugu saskietan, eredu agroekologikoa ekoiztiak eta zuzeneko salmenta bidez merkaturatuak”.

## NEKAZARIEN SARETZEAN PARTE

Ekoizten dituzten produktuak hurbilean saltzen dituzte Tierrapapeltijera-koek: ekoizkinen %90 inguruk 30 ki-

lometro baino gutxiago egiten ditu. Eta hurbileko ekoizpen-kontsumo sare horri bultzada emateko, Gaubean hilabete-ko lehen igandean egiten duten ekoizle azokaren parte dira: “Ekoizleongandik sortu zen merkatu hau, ez dago inongo finantzaketarik ezta erakunde publiko edo pribaturik azokaren atzean”.

Halaber, agroekologiarekin lotutako nekazarien beste zenbait mugimendutan presente dago proiektua: Araban Bionekazaritzan eta Saski Barazki izeneko merkaturatze kolektiborako proiektuan dabilta, eta Euskal Herri mailako etxalde agroekologikoen EHKolektiboa egitasmoaren parte ere badira. “Nekazarion ahotsa entzuna izatea garrantzitsua dela uste dugulako gaude mugimendu eta sare horietan sartuta, lehen sektoreko eta landa inguruko errealitateak sarritan ezkutatuak baitaude”. ●



1984ko otsailaren 26a



## DAMASO INTZARI ELKARRIZKETA 1986AN

# Sortzailearen hitzak



KOLDO IZAGIRRE

Euskadi lehena, zurean zen loratu batasun gogoia, zure gatetan preso nork zaitu eman, zer egin da ametsa zure erregeena, ari zaigu galdezka Eneko Labegerie.

Asmamen bat Nafarroa nafarretan nafarrenak direnen hitzetan, eta hizkerazko iduri ironiko bat baino ez "La France et la Navarre" aipatzen duten frantsesen ahoan.

Urtebete egin dute Nafarroako eskuindarrek eta sozialistek lehendakari bat hautatu ezinik. Epaitegi Konstituzionalak trenkatu du auzia Madrildik: foruak eta eskubide historikoak erreferentzia erretoriko hutsak dira, Nafarroa komunitate autonomoen arteko bat dugu, Konstituzioa nagusitzen zaio. "Eskubideak ez dira heredatzen, zuzenbideak nor bat behar du, subjektu bat", jakinarazi zuen Patxi Zabaletak, hainbatgarrenez, ebazpenaren ondotik.

Asmamen bat Euskal Herria eusko euskotarrenak direnen hitzetan, eta hizkerazko irudi ironiko bat baino ez "Nafarroa Euskadi da" oihukatzen genuen euskaldunon ahoan.

Sua eta ura, kondaira urratu baten oihartzuna, nahiaren eta ezinaren borrokakotzia, gezur eta egia gurea, oinarri eta oinaze, ari zaigu oroika Xabier Lete. ●

MIREN OSA GALDONA  
@mirentx\_u

**B**ada ARGIAren historian garrantzitsua bezain bitxia den elkarrizketa bat. Batetik, elkarrizketatuak orduko hartan ia 100 urte zituelako, eta, bestetik, jorratzen diren hainbat gai orduan ez ezik, orain ere eztabaida gai direlako.

Iñaki Caminok eta Josu Landak Aita Damaso Intzari 1986an egin zioten solasaldia da lerrootako ernamuina. Aita Buenabenturarekin batera, *Zeruko Argiaren* sortzailea izan zen Damaso Intza. Gazteleraz egiten ziren aldizkari aitzindariak eredutzat hartuta, euskaraz ere halako euskarriak egotea beharrezkotzat jotzen zuten bi Kaputxinoek. Gizon erlijiosoak ziren, bizia Jaungoikoari emana zutenak, aitzitik, euskararen etorkizunak zinez kezkatzen zituen eta oso kritiko hitz egin izan zuen Intzak, besteak beste, euskara batuaz. Hona pasarte esanguratsu bat:

*Galdera: minduta zaude euskara batuarekin?*

*Erantzuna: Damaturik nago bai, euskalkiak behar dira. Euskara batua-*

Iñaki Camino ARGIAko kazetaria eta Damaso Intza *Zeruko Argiaren* sortzailea. Bi belaunaldi parez pare, Josu Landak ateratako argazkian.

*rekin zaildu besterik ez baitugu egin Euskal Herria, zer ugaritu du, zera sartu ditu, hainbeste eta hainbeste erdarazko hitz, edo frantsesetik hartuak edo españoletik, eta hori egin beharrean lehen esan dizudana egin behar zen, herriz herri Euskaltzaindiak ezarri euskaltzain bat horretarako, eta dihoala etxez etxe euskara hutsik hitz egiten duten etxetara eta hantxe saiatu lehendik bildurik dauden euskalkien bidez hitz eta zera berriak biltzen, hori da biderik egokiena eta erosoena.*

Amets pertsonalez ere mintzo da elkarrizketan, gaztetan Kaputxino izateko hartutako hautuaz eta mende baten buruan gizartean gertatutako eraldaketaz.

Otsailaren 23an dugu Kaputxino historikoaren nahiz *Zeruko Argiaren* sorreraz gehiago jakiteko parada. Egun pasa antolatu dute ARGIAko lankideek Iruñean, atzera begirako ariketa kolektibo gisa, ARGIA Jendearentzat eta interesa duen ororentzat (ikus ondoko orriari Zubiria Etxeberriaren artikulua). ●

# 1919 IRUÑEA, KAPUTXINOEN KOMENTUA JATORRIRA BIDAIA

Eman izena garaiz, bazkaritarako:  
[argiak100urte@argia.eus](mailto:argiak100urte@argia.eus) -era idatzita

 IRUÑEA  OTSAILAK 23 LARUNBATA

**D**irudi titulu espiritual bat. Dirudi xaman batek bere kontsulta dotore eta ez hain xamaniko batean esan diezazukeen esaldia. Dirudi orain hain modan dauden familia konstelazioetako baten afixa. ARGIAk, oraindik bederen, ez du hain espiritualera jo, eta benetako gertakizunetan oinarritutako historia kontatuko digute orduko testiguen Iruñean otsailaren 23an egingo dugun egun-pasa berezian.

Eta egun-pasa bada zergatik ez deitu bere izenez? Zergatik 'Jatorrira bidaiatzen' Dena hasi baitzen 1919an Iruñean. Dena hasi zen Iruñeko Kaputxinoen komentuan, eta handik ekingo zaio Iruñean barna egingo den ibilaldi gidatuari. Ibilbide historikoa izango da, "Iruñea, gakoa den hiria euskara eta nazioarentzat" gai hartuta.

Kaputxinoen komentua izango da abiapuntua. Goizeko 11etan egingo dugu zita bertan (Carlos III Noble etorbideko 22. zenbakia), eta han lehen azalpenak emanda, Arrotxapeako Arga Jatetxea izango da bigarren parada. Auzoaren eta 60ko hamarkadako langile mugimenduaren arteko harremanez hitz egin ostean, Alde Zaharrean ginkana

bat izango dugu prest. Gaia: euskara eta batasun nazionala. Froga eta galderetan lagunduko dute gaur egun ARGIAko kolaboratzaile diren edo inoiz izan diren kolaboratzaile nafarrek.

Baina egun-pasarik ez da bukatzen otordurik gabe, eta jolasa bukatzerako Zaldiko Maldiko elkartearen prest izango dugu bazkaria, goizean zehar jasotako informazio guztiaren digestioa hobeto egiten laguntzeko. Hori bai, mesedez eskatzen da bazkaritara gelditzeko asmoa duzuenok ahalik eta azkarren emateko izena, zenbat izango garen jakin eta ondo antolatu ahal izateko. Beraz, idatzi [argiak100urte@argia.eus](mailto:argiak100urte@argia.eus) helbidera edo deitu 616 79 62 84 zenbakira.

Mendeurrena aitzakia polita da ARGIAk urte hauetan guztietan zehar bere inguruan bildu dituen langile, kolaboratzaile eta ARGIA Jendea berriz ere sorlekuan biltzeko, festa giroan. Baina noski, ez da inorentzat itxia, eta euskaltzale orori deia luzatzen diogu egun-pasan parte hartzeko.

Espiritualetik ez, baina izpiritutik asko duen bidaiatzen izango da. ARGIAren hasierako izpiritu hark bizirik baitirau oraindik ere. ●

# AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS



## ASKAPENAREN KATILUAK

Askapenak 30 urte baino gehiago daramatza joan-etorriko elkartasunean oinarrituta lan internazionalista egiten.

PREZIOA: 5 euro



## BIEZKO BASERRIAN ASTE BURU PASA

Anbotopean, Atxondon dagoen XVI. mendeko baserri zoragarrian bi lagunentzako asteburu pasa jarriko dugu ARGIA Jendearentza Musutruk otsailaren 14an, 10:00etan, bizkorren dabilenarentzat. Twitterren @argiaAzoka kontuaren bidez jakinaraziko dugu. Ez da zozketa.



## NOLA DA "MUSUTRUK"?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu ARGIA Jendearentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira.

Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da. Denon esku dago ARGIA Komunitatea elikatzea, bakoitzak ahal duena besteen esku musutruk jarrita.



# Zintzurretik heltzen ez didan literatura ez zait interesatzen

KARMELO C. IRIBARREN, IDAZLEA

Hasterako aipatu du “pertsonaia” hitza bere poemetan mintzo denaz aritzeko, kazetariari abisatu nahian bezala, hura hura duk, ni ni nauk. Hura tipo iluna duk, bakartia, hiria behar duena galtzeko, bizitzak zauritua, etsitua tristuran, ironikoa poz uneetan, iraganari kantatzen ez dionean irauteari kantatzen diona. Ni, aldiz... tira, ni agian ere bai, baina ez hura bezainbeste.

TESTUA | KEPA MATXAIN  
ARGAZKIA | DANI BLANCO

## Nola oroitzen dituzu hasiera garaia?

Groseko Bodegón San Inazioan juntatzen ginen bospasei lagun, ostegunetan, 17 bat urterekin. Ostatu handi bat zen, eta bazterreko mahai bat uzten ziguten. Isidro Mendibil, Julia Otxoa –gero idazle bihurtu zena– eta orain gogoratzen ez ditudan beste batzuk. Literatur aldizkari bat geneukan, *Barro* izenekoa. Han argitaratu nituen bi poema, baina soneto bat besterik ez daukat gordeta. Otxoak izan ezik, idazteari utzi zioten gainontzekoek, eta nik bakardadean egin nuen bidea.

## Hori irakurri dut: 80ko hamarkadako urteak oso bakartiak izan zirela zuretzat.

Bai behintzat idazle modura. Ez neukan ia obrarik. Ez nuen idazlerik ezagutzen. Baziren batzuk, aurrena *Kurpil* eta gero

*Kantil* aldizkariaren inguruan biltzen zirenak: Felipe Juaristi, Carlos Aurtenetxe, Felix Maraña, Otxoa bera... Maila handiko aldizkariak ziren. Pentsatzen dut zakar pixka bat jasoko zutela Aldunditik-edo. Haiek ere banandu ziren, bakoitza bere kontura dabil orain.

## Ez zeneukan harremanik talde harekin?

Batere ez. Ez talde harekin, ez inorekin. Nik idatzi egiten nuen. Beste kontu batzuetan ez, baina horretan egoskorra eta borondate handikoa izan naiz beti. Egiten nuenak baliorik ote zeukan arrastorik izan gabe, horretan segitzen nuen.

## Tira, orain *La Tertulia Errante*-ren parte zara gutxienez.

Bai. Circulo Riojanon hasi ginen, Kaxil-

dan segi genuen, eta Tedone jatetxean biltzen gara azkenaldian, asteazkenetan. Hiruzpalau gara finkoak, besteak nahi dutenean azaltzen dira. Idazle jendea, musikariak... jende polifazetikoa. Inork liburu bat argitaratu berritan, literatura izaten dugu hizpide. Inork ezer argitaratzen ez duen garaietan, edozertaz aritzen gara. Batez ere, joaten naiz denbora daukadalako eta gustura aritzen naizelako halako kontuez hizketan, baina ez dugu artista talde bat osatzen, estetika batekin eta abar. Gutxienez badut kontu hauetaz norekin hitz egin, eta hori ez da gutxi hiri –eufemistikoki hitz eginez– berezi honetan. Nik honezkero baditut irakurle batzuk, bai hemen, eta batez ere Espainian. 2005etik aurrera urtero argitaratu dut liburu bat gutxienez, batzuetan bi, inoiz hiru. Erritmo horretan,

azkenerako gorroto zaituenak ere eza-  
gutzen zaitu. Nire poemak gertukoak  
dira, gainera. Erraztasun “engainagarri”  
batez, baina jendeari iritsi egiten zaiz-  
kio. Bizitzaz aritzen naiz, emozioez, mo-  
mentuez... hori bilatzen dut literaturan.  
Artea arteagatik ez zait interesatzen.

***Mientras me alejo* liburu berrian, idaz-  
ten diozu zahartzaroari, maitasunari,  
emakumeari, denboraren iraganari,  
euriari... Gai berritzaileak zure poe-  
sian, inondik ere.**

(Barrez) Hor jarraitzen dut aterkia gora  
eta aterkia behera. Idazle eklektikoen al-  
dean –orain liburu errealista bat eta se-  
gidan surrealista bat ateratzen dizuten  
horiek–, nahiago ditut estilo jakin batera  
jotzen dutenak.

**Piñoi finkokoak.**

Hori da. Hala ere, aurreko liburuekin al-  
deratuz, honek badu berritasun bat: hari  
bat dauka. Aurrena daude udako poe-  
mak, gero udazkenekoak, gero negukoak  
eta azkenik udaberrikoak. Hasieran uda-  
berriarekin hasi eta neguan bukatzea  
pentsatuta neukan, baina ikaragarri sa-  
marra zelakoan, pentsatu nuen neureki-  
ko: “Utziok esperantzari toki pixka bat,  
hik horretan sinesten ez duan arren”.

***Bar de playa*-k ondo biltzen du libu-  
ruaren tonu orokorra. Tabernatik  
hondartzako gazte batzuei begira  
dagoen bat mintzo da, kontatuz nola  
haientzat ongi pasatzea gauza arrun-  
ta den, nola uda den gazteen urtaroa,  
eta nola bera jada ez den gogoratzen  
gazte zeneko garaiez. Bizitzaren er-  
tzean kokatzen den ahots bat da. Bi-  
zitza han dago, hondartzan, gazteen  
artean. Bera ikusle huts da.**

Liburuak argitaratu ahala, nire poesian  
agertu da pixkanaka pertsonaia poetiko  
bat –mintzo den hori–, nire antza handia  
daukana, baina ez beti... Ohartuta nago  
hasierako liburuetan pertsonaia hori bi-  
zitzan sartuago dagoela, tabernako ger-  
takarien protagonistetako bat dela, adi-  
bidez. Denbora igaro ahala, tabernaren  
erdigunetik ertzerara igaro da pixkanaka,  
agente aktibo izatetik gainontzekoek zer  
egiten duten behatzera. Denboraren ira-  
gana deitzen zaio horri. Orain beste une  
bat bizi du.

**Azken errematearekin jokatzeko duzu  
maiz. Poemak itxi zale zara.**

Nire poesia guztian dago hori, bai. Poe-  
mak ixteak arazo bat dauka: ez badituzu



ondo ixten, poema izorratzen duzula. Al-diz, irekita uzten baduzu, arriskua duzu iradokitzaile izan nahian deus ez transmititzeko. Nik ixtera jotzen dut, itxieran egoten delako sarri hitzaren kolpe liriko.

### **Alferrikako hitzak kentzeari ere garrantzia ematen diozu.**

Esaldi bati hamabost hitzek beharrea hamahiruk eusten badiote, nahiago hamahiru. Niretzat ideiak biluzik agertu behar du, orri gainean tenk, eta hala iraun. Bizirauten badu da bizirautea merezi duelako. Oraingoan ez dut kontua hain serio hartu, baina elipsirako joera daukat. Hori ona izan daiteke, eta ez hain ona, ze batzuetan, kentzearen kentzeaz, poemak zeukan poesia apurra kentzen diozu. Kontuz ibili beharra dago horrekin. Dena dela, ez zait erretorika sekula interesatu –nire poesia estiloarekin ez da ondo ezkontzen, gainera–. Erretorika gehiegikeria da, eta gaizki zahartzen da, gainera. Adjektibo distiratsu bat idatzi, eta handik bost urtera ezabatu egin nahi duzu.

### **Irakurle bezala ere ez zaizu interesatzen erretorika?**

Asko gustatzen zaizkit “poeta txarrak”, 20ko hamarkadako bohemiakoak, bidean geratuak, hasiberrientzat direnak, gehienera. Erretorikoak dira maiz, baina gustuko ditut, gizatasun handikoak direlako. Borrokatu bai, baina deus lortu ez duen jende klase horren parte dira. Edo Borgesaren poesia ere ondo dago –nahiz ez den izugarri erretorikoa ere–. Gustatzen ez zaidana da betelana, apaingarria. Baina, irakurri? Nik espainiar literatura guztia irakurri dut. Ez da harrokeria, besterik gabe, ordu asko sartu ditut irakurtzen. Zer irakurtzen jarraitzen dudan? Oso gauza gutxi: Becquer, Machado, Jimenez, Pedro Salinas, Cernuda, Gil de Biedma, Angel González, Luis Alberto de Cuenca, Luis Antonio de Viena, Garcia Montero... halakoak.

### **Aldiz, liburu denda batera sartzean, pentsatzen duzu: “Zenbat nobela, eta zein ederki idatziak denak, eta ze gutxi interesatzen zaizkidan”.**

Ongi idaztea ez da nahikoa, literaturak benetakoa izan behar du. Formalki egokia denak ez nau asetzen, orrialdea altxa dadin behar dut. Horregatik esaten

dut hori. Agian da jada ez ditudalako 20 urte, idazle askoren interesekin deskonexio bat sumatzen dudalako. Baina zintzurretik heltzen ez didan literatura ez zait interesatzen. Pio Baroja, adibidez, traketsa da askotan: adberbio asko sartzen ditu, asko *gerundeatzen* du, baina bere idatziek sekulako bizitza daukate. Nahiago dut literatura inperfektu bizi bat, literatura perfektu hil bat baino.

### **Zahartzaroa da zure beste gaietako bat. Las arrugas-en diozu egun inork ez duela zaharra izan nahi, are gutxiago zahar itxura eduki.**

Aurpegi zahartuek, adinak, zimurrek... lehen adierazten zuten pertsona horrek denbora igaro zuela lur honetan, bazuten prestigio hori. Garai fribolootan inork ez du zimurrik nahi, kristo guztiak egon nahi du 60rekin 35 balitu bezala. Erotzekoa da gaztetasuna gurtzeko obsesio hau. Noski, gero ikusten dira hortik zehar gauza beldurgarri batzuk...



## **Nahiago dut literatura inperfektu bizi bat, literatura perfektu hila baino**



### **Poetak ere ez daude onenean. Lehen porrotaren epika zeukaten, orain ezta hori ere. Zertarako idatzi orduan?**

Hain justu horretaz idaztea gelditzen da, begira. Poeta frakasatuak ilunabarreko dir-dir bat botatzen zuela zirudien lehen. Orain, poetek –nik ezagutzen ditudan askok behintzat– ongi bizi nahi dute, neguan berogailua piztu, asko bidaiatu... Idatziko dizut poema bat porrotari buruz, baina ez nazala ni uki.

### **Adin zaila omen da “aukerak bukatzen diren” adin hori. Gustatu zait kontzeptua.**

Philip Larkinen poema batetik hartutako mailegu bat da. Nire adina da adin zaila. Ez nuke tragikoegi agertu nahi: adin honetan oraindik ere bizi zara, barre egiten duzu, eta abar. Baina bada adin bat aukerak bukatzen direna: sinpleki, gauza batzuk jada ezin dituzu egin. Eta datorrena ez denez bereziki zoragarria... Tarteka etortzen den sentsazioa da. Igande arratsalde batez, taberna batean, euriari begira, hasten zara bizitza erreparatzen eta pentsatzen duzu, “joder, a ze desastrea”. Ordu erdi beranduago agian zaude alaiago, baina...

### **Bizirautea, mundua behatzea eta, asko jota, hori idatzita uztea al da gelditzen dena?**

Une jakin batetik aurrera, ez da gutxi. Hori daukazu bitartean, badaukazu zerbait. Egia da, bizitzaren udazkenaz ari dira nire poemak azkenaldian, tranparik gabe. Eta ez dut esaten eztabaidagarria ez denik: etor daiteke nire adineko norbait sekulako bizipozarekin galdetuz ea ze arraio esaten ari naizen. Baina ni naizenez hitz egiten duena, nire mundu ikuskera agertzen da. Gainera, beti aurki daitezke irekitako leiho batzuk, poemaren bat umorezkoa, are, alai...

### **Aizu, zer moduz daramazu sarien kontua? Aurrena Euskadi Saria, gero Melilla Hiria... Tokitan dago sarigarri ez zen poeta madarikatua.**

Ez nintzela sarigarria nioen nire literatura ez delako oso *literarioa*, kritika hotz utz dezakeelako. Gainera, sari bat jasotzeko hainbat ezaugarri bete behar ditu batek. Beti izango dituzu aukera gehiago inguruan bultzatzen zaituen talderen bat baduzu, bakarrik bazaude baino. Hori guztia kontuan izanda, ni ez nintzen sarigarri. Gelditzen nintzen Euskadi Sarietan finalista, baina ez nuen inoiz irabazten. Oraingoan, uste dut ibilbidea saritu nahi izan didatela. Baten batek esango zuen, “honi eman beharko zioagu zerbait noizbait”. Gainera, berme handiekin zetorren liburu hau: liburuzainen saria eskuratu zuen, Espainiako Kritikaren Sarian finalista geratu zen, baita Espainiako Sari Nazionalean ere...

### **Bazela garaia iruditzen zaizu?**

Ez dakit, agian. Jada ez nuen espero... tokiz kanpo bezala harrapatu nau. Gertatu da, ba primeran. Nik idazten jarraituko dut. ●

# Espainiar Inkisizioa keak belztuta



NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA  
@irazustabarrena

**L**anguedoc (Okzitania), 1184. Inkisizioa sortu zen, kataroen heresiaren aurka egiteko. Handik Europako beste herrialde batzuetara zabaldu zen, bestelako “heretikoak” aurka ere egiteko. Bekatariak sutan erretzeko joera, aldiz, Gregorio IX.a aita santuak bultzatu zuen handik mende erdira, alemaniar tradizioan oinarrituta. Eta, hala ere, espainiar Inkisizioa bihurtu zen erakundearen paradigma, beste herrialde batzuetan baino askoz gehiago iraun zuelako; Aragoiko Erresuman 1249an abiatu zuen jarduna, baina ofizialki 1478an sortu zen, Gaztelarekin bat egitean. Eta 1821. urtera arte ez zuten bertan behera utziko.

Zaila da jakiten Espainiar Inkisizioaren biktima kopurua. 1822an, Inkisizioko idazkari orokorra izandako Juan Antonio Llorentek datu hauek eman zituen: erakundeak 341.021 pertsona auzipetu zituen 1478tik aurrera, eta horietatik 31.912 sutan erre. Baina historialari gehienak bat datoz zenbaki horiek puztuta daudela esatean, eta mitoa eta errealitatea bereizteko ahaleginetan. Mito zabalduenetakoa, hain zuzen, suarena da, eta Atlantikoaz bestalderaino iritsi zen. Inork gutxi jartzen du zalantzan, XVII. mendearen amaieran Salemeko (AEBak) “sorginak” sutan erretan hil zituztela; bada, urkatu egin zituzten. Espainiar Inkisizioak kondenatutako gehienak ere urkatuta eta beste metodo batzuk erabiliz hil omen zituzten.



DERNEBURG-EN (ALEMANIA) HIRU EMAKUME SUTAN ERRETZEN.

XIX. mendean egindako beste estimazio baten arabera, Inkisizio Santuak aktibitate handien izan zuen garaian, 1480 eta 1530 urteen artean –Torquemadaren aginte garaian, gutxi gorabehera–, hildakoak 10.000 inguru izan ziren. Henry Kamen hispanistaren iritziz, matematikoki ezinezkoa da hori, garai hartako Gaztelako populazioa kontuan hartuta; erresumako ekonomiaren erabateko porrota eragingo zukeen horrek. Joseph Perez historialariaren arabera, 350 urtetan erakundeak 125.000 pertsona auzipetu zituen. Gustav Henningsen-ek kalkulatu du, horietatik %3,5 kondenatu zituztela

heriotzara eta erdia baino gutxiago erre zituztela sutan. Hortaz, zenbaki biribiletan, Espainiar Inkisizioak 4.500-5.000 pertsona kondenatu zituen heriotzara eta horietatik 2.000 inguru hil zituzten erretan. Epaia jaso baino lehen, torturapean edo baldintza kaskarren eraginez, zenbat hil ziren jakitea ezinezkoa da, ordea.

Azterketa errebisionista horien helburua ez baita erakundearen jarduna zurritzea. Zenbakiak zenbaki eta metodoak metodo, espainiar Inkisizioa errepresio eta kontrol organo odoltsu eta krudela izan zen, milaka hildako eta askoz bidegabekeria gehiago eragin zituena. ●



## Charles Lynch eta lintxamendua

1780an, AEBen independentzia prozesuan, Charles Lynch (1736-1796) lurjabe eta politikari virginiarra buru zuen talde batek Erresuma Batuen alde ari ziren hainbat lealista atzeman zituen. Modu informalean, inolako lege bermerik gabe, Lynchek lealistas urkatzea erabaki zuen. Handik bi urtera Lynchek berak lehenengo aldiz idatziz jaso zuen “Lynchen legea” kon-

tzeptua, baimen ofizialik gabe baina modu antolatuan ustezko delitugileak zigortzea adierazteko. Eta hortik sortu omen zen *lynching* hitza, hainbat hizkuntzetara zabalduko zena. Ez zen, jakina, modu horretara egindako lehen exekuzioa izan eta ez zen azken lintxamendua ere izango. Baina orduz geroztik haren abizena lintxamenduei lotuta joan da. ●



## LIBURUA

# Irakurle maitea



## KARTZELAKO GUTUNAK SOPHIE LIEBKNECHTI

KATAKRAK, 2018

IDAZLEA:

**ROSA LUXEMBURG**

MILITANTE ETA TEORIALARI MARXISTA  
(ZAMOŚĆ, 1871–BERLIN, 1919)

ITZULTZAILEA: AMAIA LASA

### AMAIA ALVAREZ URIA

**G**ogoratzten duzu noiz idatzi eta bidali zenuen azken aldiz gutun edo postal bat? Eskuz idatzi zenuen? Garai batean oso zabaldua zegoen artisten artean elkarki gutunak bidaltzea. Virginia Woolfek, adibidez, orduak pasatzen zituen gutunak idazten, bere lagunekin kezka eta gogoetak konpartitzen. Literatur genero epistolarrak eskaintzen digu nagusiki XVIII., XIX. eta XX. mendeko sortzaileen beste alderdi bat, memoriara eta historiara hurbiltzeko era intimo bat, pertsonaia historikoaren atzeko pertsona ezagutzeko modua.

Wikipedian begiratzen badugu Rosa Luxemburg “poloniar teoriarari marxista, filosofo, ekonomialari, gerraren aurkako

aktibista eta sozialista iraultzailea” izan zela irakurriko dugu. Haren heriotzaren 100. urteurrena izan zen urtarrilaren 15ean, horregatik gomendatzen dizuegu Katakrakek argitaratu duen *Kartzelako gutunak Sophie Liebknechti*. Bertan topatuko dugu Amaia Lasak duela ia 40 urte euskaratu zuen testua. Eta Luxemburg-en bizitza-filosofia eta hurbilekoekin zituen harremanak. Txoriek, zuhaitzek, gutunek, bisitek, liburuek, musikak, pinturak, oroitzapenek eta gogoetek argitzen zuten bere egunerokotasuna.

Zientzia politikoez gain, natura zientziak eta matematika ikasi zituen unibertsitatean eta nabaritzen da botanika eta zoologiari buruz asko zekiela. Kar-

tzelako leiho ondoan eta lorategian zeuden flora eta fauna ziren berarentzat egun bakoitza berezi egiten zutenak. “Zeruak, hodeiek eta munduko edertasunak luzaro lagunduko didate noan lekura noala”.

Horrekin batera liburuak irakurtzen zituen eta gutunak eta artikuluak idazten, baita hilero bisita bat jasotzen ere. Literaturari buruz hau idatzi zuen adibidez: “Poema ederrek gorputz eta izpirituaren osasuna berpizten didate”. Eta bere gogoeten artean hau ekarri dugu: “Mundu zaharraren eraisketaren lekuko gara. Harrigarriena da jende gehiena ez dela ohartzen eta uste duela lurzoru irmoaren gainean dabilela”. ●





DISKOA

# Hitza eta ahotsa



Ibon RG musikari sestaoarra

MARINA SUAREZ ORTIZ DE ZARATE

## JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Ibon RG musikariak (Ibon Rodriguez) bere lehen lan luzea kaleratu du Repetidor kolektiboaren zigiluarekin. Hamar hazbeteko bi biniloizko disko dira, bata *a capella* abestua eta bestea pianoak lagunduta.


Txesus Garate *Tzesne* arduratu da diskoaren grabazioaz eta ekoizpenaz. Grabazio saioak hainbat tokitan egin dituzte: Manzanedo Araneko eremitorio batean, Errenteriako Aitzpitarte IV.a leizean, Getxoko eta Galdakaoko bunker banatan eta Eibarko musika eskolan. Toki horietako hormen eta ertzen kontra Ibonen ahotsak modu berezian nola durundatzen duen entzun daiteke. Kanta batzuetan ahotsa lur azpitik sortzen dela ematen du.

Iboni bere barrutik ateratzen zaion ahotsa entzulearen barruraino sartzen

da, erraiak eta bihotza ukitzen dizkio. Bere ahotsa, bere kantaera hunkigarria da erabat, izugarria, sekulakoa. Batzuetan astiro kantatzen du, beste batzuetan arinago, batzuetan leun, beste batzuetan indartsuago, eta aieneak, marruak eta hotsak ere egiten ditu. Kantatzeko modu eta tonu ugari erabiltzen ditu, eta ederki baliatzen ditu silabek eta hizkiek errima eta fonetika aldetik eskaintzen dizkioten aukerak, soinuak.

Pianoa ere bikain jotzen du, kanta bakoitzak eskatzen dionaren arabera, besterik ez, soberan egon daitezkeen apaindurarik edo birtuosismorik gabe. Ahotsa baita protagonista.

Kantak mingotsak dira, zirrara-garriak, zorrotzak; harremanak, egia-gezurra, denbora, memoria, heriotza eta beste hainbat gairen inguruan eginak,



## HIL ZARA IBON RG

REPETIDOR, 2019

eta naturako elementuen bidez adieraziak. Diskoko hitz guztiak Ibonenak dira, Koldo Izagirreraren *Baldintza subjektiboak* olerkia izan ezik.

Ibon Rodriguez sestaoarrak urte batzuk badaramatza hainbat proiektutan parte hartzen, ohikoak ez diren musikak egiten, eta zabaltzen ere bai, kontzertuak antolatzen Kafea eta Galletak egitasmoaren barruan. Gaur egun, besteak beste, Eten taldeko kidea da, eta ahotsezko inprobisazioa eta elektronika uztartzen dituen Gargara bikotean aritzen da Miguel A. Garciarekin. Halaber, Xabier Montoiarekin aritua da, eta Mursego, Manett eta beste zenbait talderentzat ekoizpen lanak egin izan ditu.

*Hil zara* da bere bakarkako lehen lana. Oso ona, ederra, txalotzeko modukoa. ●



# Amodio kantuak paxkalizatzen

ANDREA ZUBOZKI

**A**iherrako plazatik joan nintzen ttuku-ttuku Zumarraga erdi arte, Paxkal Irigoyenen zuzenezko berriaren ikustera. Ordura arte bere hainbat proiektuekin ikusi banuen ere, lehen aldikoz bertsoak kantatzen ikusteko parada zen niretzat, amodiozko kantuz bakarrik osaturiko zuzenezko bat eskaini baitzigun egun hartan.

Ziaboga tabernako zoko batean instalatu da Paxkal, gitarra elektrikoa eskuan eta mikroa parean. Gu aldiz parean jarririk, tinko, kanpoko freskotasanari aurre egiteko. Lehen notek fite lasaitzen dituzte ostatu aldeko joan-jin eta elekak eta, taberna baldintza oneko behatoki bilakatzen da, ez da beti hala...

Kontzertuaren lehen zatian, ene ezkerreko auzoak eta nik ber arazoa dugu: irratan entzuniko kantu ezin indentifikatuaren sindromea, bidean hainbat aldiz entzuna! Airea xuxurlatzen ari izan ondotik, batak besteari galdegiten diogu azken kantu hau zein zen, nehork ezer jakin gabe. Baina horien artean kantu klasikoagoak ere badira, Hertzainaken *No time for love* adibidez, entzuleak herabeki kantatzen hasten direnak.

Zintzurra freskatu bitartean, Isuo eta Kezman taldeko Iosuri utzi dizkio mikroa eta gitarra, biek elgarrekin pare bat kantu egin eta gero.

---

## PAXKAL IRIGOYEN

**NOIZ:** Azaroak 28

**NON:** Zumarragako Ziaboga taberna

---

*“Ez duzue dantzatu nahi pixka bat? Gero ez erran aste barruan ez dela ligatzerik, nik aukerak ematen dizkizuet!”* Horrela hasi du bere bigarren zatia Paxkalek. Hortik landa dantza anitz ez bada ere, jendea zutitu da, eta ez da damutuko Hemendik at taldearen *Eskutitza* entzutean. Riff elektroa gitaran jotzen du, funk sorta batekin, eta koplak pasa arau publikoaren boza gero eta azkarrago sendi da, lotsak bazterrean utzi balitu bezala. Ez dea hori alaitasuna?

Kontzertu berezi honen *climax*-a Gatiburen *Mila doinu aidien* izan da. Lehen notak jotzean jadanik entzuten da taldearen lehen diskoa belarri puntetaraino ezagutzen duen jendearen oihua, bigarren ahotsa gogoz ezagutzen duena. Ene gustuko beraien kantu hoberena denez, ez nintzen kontentago izaten ahal!

Izaro kantariaren *Koilarak* abestiarekin bukatu zuen kontzertua Paxkalek, goxoki, eta leku anitzetatik heldu zen publikoak banatu zen, bakoitzak kantu horietatik behar zuen maitasun dosia harturik.

Bertsioen kantatzea ariketa zaila da, imitazioaren zepoan erortzen direlako anitz, batzuetan nahigabeen. Baina Paxkalek, lan luze baten ondorioz agian, kantuei bere kantatzeko manera inposatzen die. *Paxkalizatzen* dituela erran genezake. ●



# Bertso-zopa

Osa ezazu Oihane Pereak 2003an botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke. Gaia: Trebiñori begira.

Gure mapari begiratuta barrua jartzen zait \_\_\_\_\_ nola Araba \_\_\_\_\_ egon ta Burgos duen lekutan. Demokraziak bere aurpegia erakusten du \_\_\_\_\_: Gehiengoaren etorkizuna \_\_\_\_\_ batzuen eskutan.... Eta Trebiño hor \_\_\_\_\_ da lau jauntxoren sudur puntan.

Gure aitona \_\_\_\_\_ jaio zen egin behar dut aitortza sustraietatik entzun dezaket trebiñoarren \_\_\_\_\_.

Arabaren bizi eta daukate \_\_\_\_\_ izen arrotza nahiz batzuk duten mingain luzea eta oso esku \_\_\_\_\_ oraindik ere taupaka dago \_\_\_\_\_, gure bihotza!

Gasteiztik irten Mendialdera basoz jartzen da \_\_\_\_\_: herri txikiak, \_\_\_\_\_ xumeak jende jator ta alai begiradetan nabaritzen da min egiten duen \_\_\_\_\_ dakite badela behingoz betearazteko garaia trebiñoarren borondatea eta Arabaren \_\_\_\_\_!



RAUL BOGAJO

Word search grid containing letters for the Bertso-zopa puzzle.

# Sudoku

ERRAZA

Easy Sudoku grid with some numbers filled in.

ZAILA

Hard Sudoku grid with some numbers filled in.

# Gurutzegrama

9x9 grid for the crossword puzzle with some cells shaded red.



INDALECIO OJANGUREN

### Goitik behera:

- 1. Behin-behineko jostea egin. 2. Sailez sail. 3. Euskal Irrati-Telebista. Noren atzizkia. 4. Aditza (laburdura). Musika-obra. 5. Zapatak. 6. Ukamenak. Izena (laburdura). 7. Soto, upategi. Gipuzkoako mendia, Mendaro eta Mutriku artean. 8. Hori ahulak. 9. Aparta, ohi ez bezalako.

### Ezker-eskuin:

- 1. Gogobetea. Iheskorra. 2. Laido eginez. 3. Informazio unitate. Burusoila, karsoila. 4. Argazkiko musika tresna. Ez eme. 5. Ikusi (laburdura). Orbanak dituen. 6. Lasaia. Frantsesez, kalea. 7. Ahulak. 8. Usaimena. Bazter.

### EBAZPENAK

Vertical text providing answers to the crossword puzzle.

Grid of numbers for the crossword puzzle.

Grid of letters for the crossword puzzle.

ERRAZA: 1. Albarindu, 2. Saika, 3. ETB. Goitik behera: 1. Asea, Urkoa, 2. Laidoka, 3. Bt, 4. Alboka, Ar, 5. Ik, Pikart, 6. Narea, Rue, 7. Erikinak, 8. Ustia, Zoko. ZAILA: 1. 2. 3. 4. 5. 6. 7. 8. 9.

# César de Vicente

SAIOGILE ETA ANTZERKIGILEA



## ARTETIK HISTORIA EZAGUTZEN

“Stefan Zweigek *Geremias* antzezlanaren idatzi zuen. Suitzan estreinatu zen. Mezuaren gerra nardagarria da, utz diezaiogun etsaiari sartzen bestela sunsituko gaituztelako. 1916ko lan bat zen. Gerra Handiak erakutsi zuen proiektu burgesa ez zela bideragarria: aurrerapeña areagotzen zen baina jende gehienarentzako miseria handitzen zen. Aberastasun handiagorekin miseria handiagoa. Gerrak sistema soziala leherarazi zuen, sistema burgesararekin bukatu zuen. Eta frontetik hildakoak, mutilatuak eta zoroak zetozen. Joan zirenean Kaiserraren garaipena eta Alemaniaren handitasuna saldu zieten”

## “Langile mugimenduaren eskakizunak ez dira Bismarcken estatuarekin betetzen”

Herbert Marcuse, Günther Anders edota Erwin Piscatorren lanen edizioak landu ditu César de Vicentek (Madril, 1964). Partaide da Centro de Documentación Crítica taldean, eta iaz argitaratu zuen *La revolución de 1918-1919. Alemania y el socialismo radical* (1918-1919ko iraultza. Alemania eta sozialismo erradikala) (Catarata). Alemaniako iraultzaren mendeurrena den honetan, liburuaren aurkeztera gonbidatu du Gerónimo de Ustariz Institutuak Iruñeko Katakarak liburu dendara.

TESTUA | HEDOI ETXARTE  
ARGAZKIAK | JOSU SANTESTEBAN

### Zergatik eduki du hain presentzia txikia Alemaniako Iraultzak bere mendeurrenean?

Egia da Alemaniatik kanpo oso presentzia txikia izan duela. Alemanian ez da hala izan. Berlinen, esaterako, azarotik martxorako programa egin dute, ia egunero solasaldi ala hitzaldiren batekin. Hirian zehar tren bagoiak jarri dituzte mendeurrenaren kronologia azaltzen. Hango prentsan oso sarritan ari dira iraultzaren inguruko artikuluak argitaratzen.

Zein da iraultza honen arazoa? Arrazoi nabarmenena da iraultzak ez zuela irabazi. Gainera, iraultza zapaldu ostean hasi zen nazismoa izango zenaren goraldia. Eta horrek iraultzak esan zezakeena eklipsatu zuen. Gainera, 1917ko iraultzaren artean zegoen. Eta sozialdemokraziaren kontakizunean sistematikoki isildu izan da. Liskar bat bezala interpretatzeko deia egin izan da. Gainera, iraultzak ezin izan zituen erakundeak

ia ukitu, ez zuelako astirik izan.

Beste arrazoiak da sozialdemokraziak iraultza zapaltzen duela: bortizkeriarekin, modu nardagarri batean, espartakisten kontrako gezurrak asmatzen eta modu sistematiko batean. Iraultzaileak non, *manu militari* erasotu izan ditu. Eta Lehen Mundu Gerratik iritsitako soldatuekin ezin zuenez (lur jota iritsi zirelako, zatituta, nekatuta), *Freikorps*-ak eratu zituen: boluntarioen erasotzeko unitateak.

Sarraskia hain nabarmena izan zenez, ezin da historiara pasa. Eta Alemaniako historiografia menderatu dutenak sozialdemokratak izan direnez ezin zuten kontatu, landu, ikertu 1918-1919an zer gertatu zen. Horregatik ukatzen da gertatu zela ere.

Horregatik izan da mendeurrenaren iraultza berpiztea ere. Are gehiago, Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht hil izan ez balituzte, ziurrenik ez genuke ezta iraultzaren berririk izango.



BEREZIKI ANTZERKI POLITIKOA AZTERTU DU CÉSAR DE VICENTEK, BAKARKA ETA TALDE LANEAN.

**Liburuan XIX. mendean Bismarck-ek pentsatzen duen estatuari buruz hitz egiten hasten zara. Nola Alderdi Sozialdemokratak (SPD) joko politikoan sartzeko onartzen dituen Bismarcken arauak. Eta nola estatu hori kudeatzera iritsiz SPD inoiz ez den iraultza baten alde jarriko.**

Bai. Nahiz eta urte luzez Bismarcken boterearen eta SPDren artean borroka gogorrak egon (legez kanporatzeak, adibidez), *de facto* itun bat zegoen. Bismarckek zera planteatu zuen: "boterean" segi zezakeela baldin eta bere arazo nagusiaren aurrean, SPDren aurrean, amore ematen bazuen zenbait kontutan. Aldi berean, SPDk egin zuen irakurketa zen: "Bismarckek amore eman du konfrontazio bortitzik gabe, grebak salbu. Beraz ez da iraultzarik behar gauzak aldatzeko".

Noski, zuk boterearengandik eskakizunak eskura ditzakezu, eskakizun erreformistak badira. Baina hemen Luxemburgek argitu zuen nahaste bat dago:

zer da erreforma eta zer da iraultza. Zeren iraultza ez da gizartearen eraldaketa bortitz bat, eta erreforma ez da, apurka, modu baketsuan egindako eraldaketa bat. Afera da erreformaren bidez ez dela gizartea eraldatzen. Ituna da dagoena. Erreformatik zera dio: guztiok eman dezagun amore eta guztiok pozik geratuko gara. Afera da guztion eskakizunak ez direla betetzen erreformarekin. Zeren langile mugimenduaren, mugimendu komunistaren ala anarkistaren jatorrian dauden eskakizunak ez dira betetzen Bismarcken estatuarekin.

Eta ordea, irudi luke, aldaketa erreformisten bidez lortzen ari zarelako eskakizunak betetzea. Pasa zaitezke monarkiatik errepublikara, adibidez. Eta hala ikusten baduzu ez duzu iraultza ezertarako nahi. Are gehiago: norbaitek iraultza abian jarritz gero, likidatuko duzu.

**Sozialdemokraziaren barneko haustura Mundu Gerra babestu zutenen eta ez zutenen artekoa izan zen.**

**Baina, haustura hori ez al zettorren lehenagotik? Ez al ziren bi proiektu antagoniko SPDren baitan, behintzat, Errusiako 1905etik?**

Gerrarik egon izan ez balitz, haustura handi hori egongo litzateke. Baina goazen lehenagora. Europako alderdi sozialdemokratek gerran ez parte-hartzea itundu zuten. Gerra hasi berritan, ordea, gerra babestu zuten: sozialdemokrata belgikarrak sozialdemokrata alemana hiltzea. Baina bada beste afera nabarmen bat ere: sozialdemokraziak kolonialismoa onartzen zuten. Zergatik? Alemaniako langileentzat ona zelako. Eta horrek mantendu ezin zen kontraesan bat zekarren. Funtsean esaten zen ongi zegoela Kongoko langilea kolonialki ere zapaltzea. Horrek ezin zuen asko iraun.

Rosa Luxemburgek salatu zuen kapital metaketaren zati bat oinarritzen zela inperialismoan. Eta beraz, nik uste, gerrak sortu zuen zatiketa hori inperialismoak sortu zuela sozialdemokraziaren baitan. ●



BIDALI ZURE HARRIKADAK: [BERANDUEGI@ARGIA.EUS](mailto:BERANDUEGI@ARGIA.EUS)

## Mugimendu feministak jada ez daki futbola ona ala txarra den



"PIKARA MAGAZINEKO ERREDAKZIOAN, TXINAKO LIGAKO ERDILARI\*-EN INTERSEKZIONALITATE TRANSISTEMIKOA AZTERTZEN"

Athletic-ek San Mames leporaino bete eta gero, ezinegona sortu da mugimendu feministaren baitan. Lehenbizikoz ikusi du futbol mundutik albiste pozgarriak etor daitezkeela, eta estrategia aldatzera behartu ditu horrek. "Jada ez dakigu matxiruloen kartzela heteropatriarkala den,


edo ahalduz eta askapen frontierako arma bat", esan digu *Pikara* magazineko Patri Arkatuarenak". Martxoaren 8an, jai eguna dugula aprobetxatuz, kedada bat egingo dugu San Mames alboko "Gol" tabernan, Ligako partida telebistaz ikusi eta etorkizuneko pausoez hausnartzeko. ●

### SAREAN ARRANTZATUA

Non da Wally?



Aireak zurca nazan



## Podemos zenbat gehiago zatitu daitekeen aurreikusten saiatuko da EHUko ikerlari talde bat

Euskal Herriko Unibertsitateko Biologia eta Zientzia Politikoetako fakultateetako kideek bat egin dute ikerketa transbertsal berritzaile baten: itsas-izarren ugaltzeko modua aztertuko dute eta horrek Ernesto Laclau teoriarari post-marxistaren postulatuekin daukan harremana. Ikerketaren helburua da jakitea zenbat gehiago zatitu daitekeen Podemos alderdia, guztiz desagertu au-

rretik. "Baliteke inor ez gogoratzea alderdi horretaz hemendik gutxira", esplikatu du ikerketan parte hartzen ari den Jairo Zubiondo EHUko irakasleak. Baina ez dute beste hipotesi hau ere baztertzen: atomoaren tamaina izango duten zatitan banatuta, Podemos airean zehar barreiatzea gizarte osoan hegemonia hedatuz. "Nik uste hori dela Errejonen apustua", gaineratu du Zubiondok. ●

PODEMOS IZENEN ZELULAREN BANAKETA, GERTUTIK IKUSITA

# ATXEGA JAUREGIA

*jatetxea*

ATXEGA  
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)

1919 IRUÑEA,  
KAPUTXINOEN  
KOMENTUA

ARGIA

# JATORRIRA BIDAIA

IRUÑEA OTSAILAK 23 LARUNBATA

## EGITARUA

11:00etan elkartu  
Kaputxinoen Komentuan  
(Carlos III Noble etorbidea, 22)

Iruñean barna ibilaldia

12:30 Alde Zaharrea  
GINKANA tematikoa:  
euskara eta batasun nazionala

14:30 Zaldiko Maldiko  
elkartean oturuntza\*

\*

Eguerdiko janaldian zenbat  
izango garen jakiteko,  
eman izena lehenbailehen:  
[argiak100urte@argia.eus](mailto:argiak100urte@argia.eus)

*bizi nahi duen herria*

100 URTE TXIKITIK ERAGITEN

#ARGIAK100urte

T. 616 79 62 84 E. [argiak100urte@argia.eus](mailto:argiak100urte@argia.eus)

[WWW.ARGIA.EUS](http://WWW.ARGIA.EUS)

BABESLEAK:

